

# ARRASATE

## PRESS


Arrasate 1990eko Uztailak 13, 72. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



JOSE MARI ERAÑA:  
"Idazkariari garrantzi  
handiegia eman zaio"

### BRITAINIA HAUNDIARAKO BIDEAN



A R R A S A T E  
K I R O L A K

Kontzeziño 8, ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12

# SALGAI ATBren KAMISETAK



**G**ure kamiseta eskuratu nahi baduzu, uztailaren 12tik 26ra bitartean, salgai egongo da ATBren bulegoetan. Zatoz.

Ordutegia: arratsaldeko 5etatik 6etara.

Prezioa: 2.000 pezeta.

Galdetu Josune edo Karmelegatik.

**ARRASATE  
PRESS**

ASTEKARIA

**Argitaratzailea:**

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1,  
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin  
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa  
Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan  
Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito  
Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi,  
Klanion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo  
Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalataikoan,  
ASA Taldea.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**

J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 7.000 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta eri-  
tzien erantzunkizunik.



## Hondamenez hondamen

Hondamen guztiak zeinu bere-  
koak diren ala ez jakiterik ez dago.  
Neri horrela deritzait, behintzat.  
Hala ere, arrazoidun omen den ani-  
maliak, hots, gizonak -bere inter-  
pretazio edo irakurketa eskain die-  
zaioke hondamenari. Batzuek erlijio  
kontzeptu estuetatik onartuko dituz-  
te kalamitateen sustraiak. Beste  
batzuek, berriz, naturari leporatuko  
dizkiote. Gainerakoek, azkenik...  
auskalo zeini!

Hondamenek edozeinen baitan  
sorteraz dezaketen jarrera lagunko-  
rren barnean, orain hurrengoan  
Iranen izandako lurrikarak zer pen-  
tsatzerik ere ekarri dit. Oro har eta  
milaça kilometrotara era arin batez  
jarrai dezakeen ikustari honen uste  
apalez, gizakiaren maltzurkeria fal-  
tsua azalerazi du iraniar herriaren-  
gan eroritako zorigaitzak.

Harri eta zur utzi ninduen Irane-  
ko lehen ministrariak, bere zenbait  
aitorpen irakurtzean. "Izadiak -na-  
turak- zigortu gaitu" zioen, nazioar-  
teko laguntza eskatzen zuela. Eta  
nire harridura, hainbat eta hainbat  
hildakoren aurrean naturaren eran-

tzunkizuna aipatzean zegoen. Nola  
arraio uler daiteke, giza norabide  
malgugabea fundamentalismorik  
itzelenean errotuta izanik, lema  
okertzen zaienean izadia errudun  
bakartzat hartzea? Ez dirudi erlijio  
amorekaizkeriaren ondorio lojikoia  
denik.

Baina ez da horretan geratzen,  
istorio goibel bezain ilun guzti ho-  
rren hipokresia. Islameko defenda-  
tzaile sutsuak kanpotik hel dakie-  
keen laguntza osoa onartzeko prest  
omen daude, baldintza bakar bat  
ipini dutelarik; ez dute laguntzaile-  
rik onetsiko. Hau da, ez bide dute  
testigurik nahi. Eta erabaki horren  
zioa, laguntzaile zenbaitzuek iraniar  
herriarekiko orain arte azaldutako  
jarrera erasotzailean bilatu behar da.

Neri pena ematen dit, benetan,  
zirkunstanzia politikoez -sarri-  
giza aldekoak ezabatzen dituztela  
egiaztatzean, kolore eta tendentziak  
bost axola zaizkidalarik. Fanatis-  
moa, intolerantzia eta giza baloreak  
zanpatzen dituzten gainerako gaitz  
guztiak... errotik suntsitu beharre-  
koak ditugu.

*Josemari Velez de Mendizabal*

**UGARAN  
jatetxea**

Garagarza auzoa - 1/797858 Arrasate

**enpresa  
bazkariak  
eta famili bilerak**



**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**MARTINEZ**

**aroztegia**

Sukaldetan neurri guztietako altzariak

Araba Etorbidea 13, Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



**Zorizi**

**GIZON ETA EMAKUMEAREN MODA**

Otalora z/g Tfnoa: 79 20 50 ARRASATE

**ARRASATE PRESS**

**77 08 15**

**“Egunkaria sortzen” dela eta, Amatiñori gutun irekia**

Amatiño jauna, agur t'eredi:  
Nahiz eta horrelako susmoak aspaldi hartuta egon, gaur argi eta garbi ikusi ahal izan dut (nahiz eta sinestu nahi ez) ingurumarietan somatzen nuena, alegia, gure zoritxarreko Euskal Herri honetan zerrenda beltzak funtzionatzen hasi direla. Gaur, ETB2ko Mariano Ferrer-en programan ikusi zaitudanean, “Egunkaria Sortzen”i buruz eztabaida zela eta, sutsuki eta kupidagabeki proiektu horren aurka egoteko daukazun arrazoi bakarra dela bertako promozio-taldean zenbait pertsona zure ez-gustoko agertzea, konprenitu dut gutzia. Alegia, ez zara keja-tzen zenbait jende ez dagoelako, baizik eta urlia edo sandia *badagoelako*.

Harro-harro, paper zuri bat erakutsi duzu kamara aurrean, zeinetan agertzen bait da, zuri sinestu behar badizugu, malko-zotinen lurralde negargarri honetatik betirako erbesteratuak izan beharko luketenen izen abizenak. Lotsa ñimiñoenari ere erreparorik egin gabe, prest agertu zara gainera banan-banan irakurtzeko, guztion jakinean gera dadin basapizti saldo horren nortasuna. Gutxienez Mac Carthy-ren sa-soian zerrendak ezkutupean mantentzen ziren, eta lotsagarria zen beraien bultzatzaile sutsuenentzat ere bere existentzia onartzea.

Baina, beharbada, hobe horrela, ezta? Ea, aurrera, egia da, zergatik lotsatu? entera gaitetzen danok behin betiko zeinen presentziatik egin beharko dugun ihes deabruarengandik bezala, zein ezin izango dugun inolako proiektu, lan-asmo, bilera, afari, txango edo txikiteotara gonbidatu, zeinekin ezin izango dugun hitzegin, beharbada ezta agurtu ere, geu ere susmagarri bihurtu gabe inkisidore berrien aurrean. Uxatu ditzagun guregandik izurria bezala, beraiek bait dakarkiate galbidea ikutzen duten edozeri. Horrela baino ez dugu lortuko gure asmo eta pentsamenduen garbitasuna frogatzea.

Ez naiz hasiko hemen kontatzen zer izan zen Ipar Amerikan Mac-carthys-moa, sobera ezaguna bait da, gutxi gora-behera ez bada ere. Ñabardura bat baino ez nuke azpimarratu nahiko: ja-

rrera politiko lotsagarri hori herrialde txit demokratiko batean eraman zen aurrera, lege-biltzar txit demokratiko baten kontrolpean eta herriaren gehiengo demokratikoaren onespenez. Nora goaz, Amatiño? Nere aldetik zera esango nizuke: Jaungoikoak libra gaitzala sozialismo “errealarengatik”, baina era beran, salba gaitzala demokrazia mac-carthyrarengatik. Eta bitartean, gutxienez, utziozu Erresumako Inkisidore Nagusiarena egiteari.

Adeitasunez:

P. Gartzia

**Gazteak eta lokalak**

Mondragoeko gazteontzat, tabernak dira denbora libre pasatzeko aukera ia bakarra.


Guztiok, ordea, ez gara horrekin konformatzen. Askok sinistu nahi ez badute ere, herri honetan badago jendea aktibitate ezberdinak aurrera eramateko gogo bizian: musika taldeak, antzerkia, argazkilaritza, Hamabostal-di taldea...

Gazte horiek, ordea, kalean daude; gehienek ez dute non elkartu ere.

Nere ustez, Udaletxeak bere gain hartuko beharko luke erantzun egokia bilatzeko ardura. Lokalak, lokalak behar dira. Eta bururatzen zait orain, bai Ospitale Zaharrean, eta bai Otaloran hutsik gelditu den behin behineko Udaletxean, makina bat gela gelditu zaizkiola libre Udalari.

Ulertzen? Batzuk poteoa baino zerbait gehio egin nahiko genuke!

Aitor Zabala



# Ikusi duzu mundialetako futbol partidurik?




**Margari Markuleta**  
(etxeoandrea)

Batzuk bai. Nahiko gustora ikusi ditut, lau urtetik behin direnez, pozik ikusi ditut.



**Javier**  
(langilea)

Bai. Ikusi dudana ez zait bat ere gustatu, futbol gutxi eta arbitraia txarrak ikusi dira.



**Mestre**  
(langilea)

Bai. Oso maila baxua egon dela uste dut. Camerunek jokatu duen futbola asko gustatu zait, garbi ikusten da Afrikako futbolak gero eta indar handiagoa duela.



**Amaia Abarrategi**  
(ikaslea)

Batzuk bai. Egia esan, Espainiak jokatu dituen partiduak ez zaizkit gustatu eta finala ere ikusi nuen. Nire ustez, Alemaniak irabaztea merezi zuen.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!**

ARRASATE - ESKORATZA

## Memesa

79 42 22

## KAJOI TABERNA

erdiko kale 22  
tfnoa: 79 32 27

## KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak Enkuadernazioak

**GOI PRODUKZIOKO MAKINA BERRIA**


Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82 ARRASATE

## ARRASATE

## PRESS

77 08 15

**BEHARREZKO TELEFONOAK**



**ERITETXEAK**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorria .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulanziazkiak .....	45 87 44
----------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZANTZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILIAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak .....	79 87 77
--	----------

**13 OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Jungla de cristal". 7 eta 10etan.
- Novedades: "Johnny el guapo". 10.30etan.
- Nazioarteko folk dantza jaialdia:
  - Oñatiko kiroledegian gaueko 10.30etan: Quebec-eko "Tam ti Delam" talde folklorikoa eta Greziako "Aetofolia finos" dantza taldea.
  - Bergaran, gaueko 10.30etan: Jugoslaviako "Vojvoda Stepa" Ballet Nazionala eta Poloniako "Dobron" kantu eta dantza taldea.
- Kontzertua: Round Trip jazz taldearen emanaldia. Gaueko 10.30etan, Monterron parkean.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

**14 LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Nunca fuimos ángeles". 5, 7.30 eta 10etan.
- Novedades: "Johnny el guapo". 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Nazioarteko folk dantza jaialdia:
  - Oñatiko kiroledegian, gaueko 10.30etan: "Jugoslaviako "Vojvoda Stepa" ballet nazionala, Poloniako "Dobron" kantu eta dantza taldea eta Oñatiko "Oñatz" dantza taldea.
  - Bergaran, gaueko 10.30etan: Irlandako "Narrahmore" gaitero taldea eta "Geraldine" dantza taldea, Villafranca de Penedés-eko "Castellers"ak, Galiziako gaiteroak eta Bergarako "Xamatx" dantza taldea.
- Kontzertua: Casse Pieds rock taldearen emanaldia. Monterron parkean, gaueko 10.30etan. Sarrera doan.

— Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.

**15 IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Nunca fuimos ángeles". 5, 7.30 eta 10etan.
- Novedades: "Johnny el guapo". 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: Español. Iturriotz.

**16 ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Nunca fuimos ángeles". 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "Johnny el guapo". 7.30etan.
- "Gazteak gazteen ikuspegitik", argazki lehiaketaren sari banaketa. Monterron kultur etxean, arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

**17 ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Nunca fuimos ángeles". 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

**18 ASTEAZKENA**

- Zinea: Alai: ez dago emanaldirik.
- Goardiako farmazia: Morales. San Andres.

**19 OSTEGUNA**

- Zineklub: "Este muerto está muy vivo" pelikula ikusteko aukera. Monterron parkean, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerías.
- OHARRA:** Eguraldi txarra eginez gero, Monterron parkeko ekitaldiak, amaia antzokian izango dira.

**ERAKUSKETAK**

• Bustingintza eta pintura ikastaroetako lanen erakusketa. Monterron kultur etxean, uztailaren 16ra arte.

**BEKAK**

• Arrasateko toponimia jaso eta finkatzeko beka. Eskuerak aurkezteko epea, uztailaren 20a. Arrasateko Euskara Zerbitzuak zabardutako deialdia.

**LEHAIKETAK**

• Jose M<sup>o</sup> Arizmendarreta V. Lehiaketa. Gaia, "Egungo gizartea diruaren menpeko". Deba Garaiko ikasleei zuzendua. Lanak bidaltzeko azken eguna azaroaren 6a. Gizabidea fundazioak antolatuta.

**AUTOBUSAK**

• Egunkari festara joateko autobusak. Euskal egunkariaren aldeko kanpainari amaierara emango dion festara joateko, AED elkarteak antolatuta. Izen emateak AED elkartearen lokaletan. Irteera, igandean, arratsaldeko 4.15etan, Garibai kalean.

# LOGIC CONTROL

Informatika zerbitzuko lehen enpresa nazionalak Gasteizko ordezkarietarako

## CAD / CAM KOMERTZIALA

behar du.

Perfil egokia gazte bati dagokio, L.S.M. goi mailako Injinerutzan edo Injinerutza Teknikoan eta CAD / CAM sistemen ezagupenaz.

### BALORATUKO DA:

- Sektorean esperientzia.
- Ingeles ezagupenak.

### ESKAITZEN DA:

- Talde gazte eta dinamikoan sartzea, promozionatzeko aukera zabalaz.
- Balore eta ekarritako esperientzien araberrako ordainketa.

Interesatuak Curriculum Vitae-a bidali, argazkiarekin batera:

LOGIC CONTROL, S. A. Erref: 240601.  
Gasteiz Etorbidea 63, 01008 GASTEIZ

## Osorik pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate

## ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritzitatea eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10,  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77

## ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA



J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64



**SAMEGO  
GARBIKETAK**

Alfonso X. Jakintsua 5,  
Tfnoa: 79 70 36  
ARRASATE



## Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN  
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO  
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA  
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

“ Arrasateko lantegi-kooperatiben omena haundia izan da eta da oraindik Euskal Herri guztian, eta baita Espainia aldean ere. Hasiera hartatik gauzak aldatu dira, baina egiazko mitoa bihurtu zen une batez Mondragoeko kooperatibismoa. Uste dut, gaur berriz, tentsio eta sokatira gogorak izango dituela bere baitan.

Nola ezkon elkarrekin kooperatibari dagokion egitura demokratikoa eta lantegi bizi batek gaur eskatzen duen erakunde bizkorra? Asmatuko ote du kooperatibismoak 'etengabeko heziketa' delakoaren bidez, produkzio harreman berriekin, gizon eta gizarte berri bat sortzen?

(...) Idazlantxo honekin agertu nahi dudana itxaropena da, ekonomi era honek antolaketa berria sakondu duelako: Gizarte-Ekonomia. Kooperatiba eta lantalde elkarteak sortu dituzte (elkartuzko lana, kontsumoa, kreditu eta aseguruak, irakaskuntza...).

(...) Gauzak horrela, Arrasateko esperientziaren gauzarik baliotsuenak hauetxek izango lirateke:

- Demokrazia lantegi hauetan sartzen eta bizitzen ikustea.

- Langileen arteko elkartasuna bai lan moldeetan, bai auzo-laguntzan, bai eritasunei dagokien asegurantzetan, etab.

- Kooperatiben espiritua birhedatzea. Honi ongi deritzot, Estatuak dena beregain hartu nahi duten garai hauetan, eta aurreko urteetan Euskal Herriko deskapitaltzeari sokatira sendoa eutsi diolako.

Horregatik, gaurko multinazionalen 'open'aren aurrean bide amaigabeak dira kooperatibak. Eta garrantzizkoa da hauxe zaintzea: langileak duela egiazko balioa (gizon bat delako, ez tresna bat; norbait delako, ez zerbait). Lurrak, edo tresnak, edo dirua baino lehenik dela beti lanean ari den gizona.

(Joxe Agustin Arrietak DVn)

**Konstituzio Espainolak ez ditu Estatuak hizkuntzak baztertzen?**

Ni neu bizimodu guztiak eta bizitzeko estilo guztiak salbatzearen aldekoa naiz, txikiak ematen badute ere, batzuen eta besteen artean alde handiak egon arren. Beraz, euskara moduko hizkuntza salbatzearen aldekoa naiz, jakina.

Aipatu hizkuntzek bi funtzio betetzen dute. Batek, elkar ulertzekoarena, baina bestetik gure pentsamendua bideratzearena. Jendeak uste duenaren kontra, ez da pentsatu ahala berba egiten, berba egin ahala pentsatu baizik. Ikasten dugun hizkuntzak gure pentsamoldea moldatzen du, pentsatzeko, gogoetarako kategoriak eta kontzeptuak ematen dizkigulako. Orduan, hizkuntza elkarri ulertzeko baino gehiago da, eta oso sakonak diren sustraiei erantzuten die, niri salbatzea axola didatenak. Nire ustez, euskara oso jende gutxik hitz egiten duen hizkuntza izanik, salbatzen laguntzea garrantzitsua da. Hala ere, eragin praktikotarako, beste herri batzuekin komunikatzeko gaztelania erabilgarriagoa da. Nik neuk ez dut problemarik ikusten bi hizkuntzak erabiltzeko.

Bestalde hau ez da legez konpontzen, erabilera legearen aurretik doa eta. Legeak edozer diola ere, bi hizkuntza gatazkan daudela, bata menperatua da eta bestea menperatzailea, baina niri bost axola dit legeak. Legeak hizkuntza debekatzeko ez badu, salbatu behar du dutenak berba egiten dutenak dira, legeak baino lehenago eta gehiago.

Jose Luis Sampedro

Espainiako Hizkuntz Akademiako partaidea

## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- Gogorak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilipen iraunkorrekoak

**Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!**

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

**Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik**

**Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate**



# Nazioarteko Folk Dantza Jaialdia

*Oñati eta Bergaran asteburu honetan zehar*

Eusko Jaurlaritzak, Oñati eta Bergarako Udalek eta Oñatz eta Xarmatz dantza taldeek antolatuta, asteburu honetan Nazioarteko Folk Jaialdia izango da Bergara eta Oñatin. Europako Estatu ezberdinetako eta Estatu Espainoleko hainbat eskualdetako dantza taldek hartuko dute parte jaialdian. Québec, Grezia, Jugoslavia, Polonia eta Irlandako folkloreak ordezkaria izango dute egun hauetan Bergara eta Oñatin. Atzerriko talde hauekin batera, Katalunia eta Galiziako zenbait taldek ere parte hartuko du Oñatz eta Xarmatz taldeekin batera.

Ostiralean, Oñatiko Zubikoa ki-



roldegian Quebec-eko "Tam ti Delam" eta Greziako "Aetafolia Tinos"

taldeen emanaldia izango da. Egun berean, baina Bergaran, Jugoslaviako "Vojvoda Stepa" eta Poloniako "Dobron" taldeen ekitaldia ikusteko aukera izango da.

Larunbatean berriz, Oñatin, Jugoslaviako "Vojvoda Stepa", Poloniako "Dobron" eta Oñatiko Oñatz taldeen ekitaldia izango da. Bergaran, oster, Irlandako "Narrahmore", Villafranca del Penedés-eko "Castellers", Galiziako gaiteroak eta Bergarako Xarmatz dantza taldearen emanaldia izango da. Jaialdiak gaueko 10.30etan izango dira, baina egunean zehar ekitaldi ugari izango da Oñati eta Bergaran.



## Buztingintza erakusketa Monterronen

Egun hauetan zehar, Monterron erakusketa aretoan, Leintz Zeramika Eskolako ikasleek otsaila eta ekaina bitartean egindako lanak daude ikusgai. Erakusketan, ikasleek buzingintzarekin izan dituzten lehen harremanetan sortutako lanak ikus daitezke. Leintz Zeramika Eskola, tren geltoki zaharrean dago eta gaur egun 50 bazkide ditu. Urtean zehar, Zeramika Eskolak bultzatuta, ikastaro ugari ematen dituzte Zeramika Eskolan bertan zein herriko ikastetxe ezberdinetan.

*Jesus Giraldo*

## LISERI-APARATUA

**X Izpiak, endoskopia**

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adesias (Muface) eta partikularrak  
Kontsulta arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14. ARRASATE

**OBRA DIRELA ETA ERDIKO KALEAN GAUDE**

*Mondragonesa Grafikagintza*

**Paperdenda. Mahaigaineko tresnak**



## ETXE-AUNDI

Dastapen-menua  
uztailaren 21erako

- Barazk eta ganben koktela  
tomate-coulisse gainean.
- Frantsesporruak izokin  
kezkatuz eta otarrainkak  
barrubeteak.
- Ahate-giharrea eregineta-  
sagarrez barrubetela
- Fruta-tarrina almendra-  
moussearekin.

3.200 pzta BEZ barne

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**Matrikula epea zabalik  
Arrasate Musikalen**

Arrasate Musikalek matrikula epea zabalik izango du uztailaren 20a arte eta iraileko lehen hamabostaldian. Zortzi urtetik gorako haur guztiek izango dute matrikulatzeko aukera. Arrasate Musikalek Arrasateko Udalarekin sinatu berri duen komenioari esker, datorren urtean kuotak merkeagoak izatea eta akademiako ikasleentzat beka sistema egotea espero da.

**Lurrazpiko aparkalekurik ez**

Cordoba y Oro eta Obenerreka enparantzetan ez da lurrazpiko aparkalekurik egingo, oso eskaera gutxi egon da eta. Aparkalekuak egin behar zituen enpresak, garrantia gisa, Arrasateko Udalari dirua aurreratu zion. Arrasateko Udalak, aste honetan bertan, itzuli dio enpresari, honek aurreratu zion dirua.

**Ertzain jubilatuei laguntza**

Arrasateko batzokiak, frankismoan preso egon ziren ertzainei edota euren alargunei, indemnizazioa lortzeko behar duten dokumentazioari buruzko informazioa eman go du. Honen inguruko berri izan nahi dutenak, astelehenerik ostegunera bitartean, arratsaldeko 6etatik 8etara, batzokira zuzendu beharko dira.


**Besaideren oharra**

Besaide Mendizale Elkarteak, bazkide guztiei jakin erazi nahi die, gazteen federatu kametak, dagoeneko iritsi zirela. Kameta jaso behar dutenek, astearteetan arratsaldeko 7.30etatik 8.30etara har dezakete, Besaideren lokaletan.

**Txandaka**

**Santiagorako bidea**

Urte batzuk joan dira. 1986. urtean lau arrasatear "Santiago Bidea" burutu eta osatu genuen: Jose Mari Ortubai, Gabriel Mendizabal, Martin Arregi eta neuk bete genituen Bideko hamar tranckoak, lehendabiziko egunetan Donibane Garazitik Logroñoraino, Eusebio Gomez bidelagun izan genuelarik.



Santiagorako Bidea era *Jose Mari Mendizabal (\*)* askotara egin daiteke: trenez,

hegazkinez, kotxez, oinez, bizikletaz zein zaldiz. Baita bai labide horiek nahastu egin daitezke. Bakoitzak bere helburuak ditu bideari ekiterakoan eta bakoitzak daki zenbat egun eman ditzakeen bidaia horretan.

Gure bidea hamaika egunetakoa izan zen, gehi hiru egun Logroñon, Leonen eta Santiagon egonaldi luzeagoa egin genuelako. Oro har, 16 eguneko askatasuna eman zieten gure artean ezkonduak zirenei euren emazteek eta bene-benetan eta bihotz-bihotzez eskertzen dizkiegu Mila eta Juaniri Gabrielen eta Josemariren laguntza guztiz beharrezkoa izan bait zitzaigun. Gabrieleak ibilalbiak eratu zituen, menditsuenak aukuratuz eta asfaltoa alboratuz. Jose Mari hoteletak erreserbak egin eta kontabilitatea eraman. Martinek kotxea ipini zuen eta sonbrero poli bat buru gainean Castillako eguzkia oso gogorra bait zen. Nik autoa eraman, erosketak egin eta bazkaltzeko tokiak aukeratu, erreka bazterretan.

Zergatik egiten da bidea? Hor dagoelako. Mendi puntara ere horrexegatik igotzen dugu, mendia hor dagoelako. Bideak berak interesak eta helburuak sor arazten ditu. Helburu deportiboa da. Geografia ezberdina zapaltzea beste bat. Jende ezezagunagaz topatzea beste bat. Bideak espiritualitatezko oihartzun sakon eta ixilak supertzen ditu. Castillako eguzki disdiratsua, lautadako bakardadea, haizearen hots estepariora, lurrak eta zeruak bat egiten duten martzaren

iheskortasuna, eta, zu zeu zeure pentsakerakin jardunean ez dira baldintza txarrak norberetasuna edo espiritua-ren bizitza, edo zentzu poetiko edo Jainko bilakatzeko. Maiz baino maizago gure kezka erlijioso, metafisiko, trazedentalak azaldu ziren gure arratsateko jardunaldietan.

Mezatarara ere bost bider joan ginen: lehena Orreagan

San Inazio egunean; bigarrena Los Arcosen, igande bezpera zelako; hirugarrena Fromistan eliza erromanikoan; laugarrena Leonen, San Isidora eliza Erromaniko bikainean; eta azkenik Santiagon, Apostoluari agur egiteko.

Kulturako arlo guztiak landu ditzakegu honelako bide batean: artea ikasi, Erromanikoz eta Gotikoz josita bait dago bide guztia; Historia ikasi eta erromatarren, godoen, musulmanen, eta Erdi Aroko hainbeste kultur aztarna ikusi ahal izan; gastronomiak bere toki aparta du bere bide honetan. Beti tokiko gauzak jan eta edaten genituen. Gogoan dut Beloradoko ogi zuri zuria, Galiziako pulpoa, eta ardo kultura: Nafarroako ardo argiak, Errioxako guzti guztiak, Ribera de Dueroko ardo beroak, Bierzokoak ere probatu genituen, eta azkenik Albariñoak eta Ribeiroak eta Rosa-  
doak.

Literatura eta erromantzeak ere landu eta ikasi ditzakegu. Bideko izen bakoitzean historia bat dago. Zubi, iturri, erreka, uriburu, eleiza, monastegi, gaztelu, apaiz, ibiltari, mendi eta bideko izen guztiek Bidearen gogo berritzen dizkigute.

Erretiroa hartzen dugunean, gure gorpuzak itxura eta egoera onean baldin badaude, egingo dugun gauza bat horixe izango da: Santiagorako Bidea berririo egin oso osorik.

(\*) Abadea

**KiDE**

**Paperdenda eta jostailudenda**

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA**

zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



## Udaletxe zaharra zabalik

*Hirurehun milioiko kostuaz, erabat berriztuta*

Joan den ostegunean zabaldu zen Arrasateko Udaletxe berriztua, bi urtez obratan egon ondoren. Hilaren 5ean Udaletxeko bulegoak itxita egon ziren, Otalora kaleko behin-behineko udal bulegoetatik, Udaletxe berriztura gauzak eroateko.

Udaletxean diren lanek hirurehun milioi inguruko kostua izan dute. Udaletxea kanpotik garbitu eta barutik erabat berriztu egin da. Udaletxean egin diren lanek bi helburu izan dute, batetik eraikuntzari argitasuna ematea, eta bestetik, bulegoak era arrazionalagoan antolatzea. Eraberritzearen ondorioz, Udaletxeak solairu bat irabazi du, lehen erabiltzen ez ziren kamaretan Udal bulegoak egokitu dira eta. Udal artxibategia bestalde, alohondiga zaharrean eta sotoetan egokitu da.

Udal sail desberdinak non jarri

erabaki aurretik, arrasatearrak gehien zein zerbitzu erabiltzen duten ikertu zen. Ikerketaren emaitzen arabera egin da Udaletxeko barne-antolaketa.

Beheko solairuan, Udaltzaingoa, harrera tokia eta artxiboa egokitu dira. Lehen solairuan, pleno aretoaz gain, Alkatetza eta Idazkaritza. Lehen solairu honi, alboko etxeko bi etxebizitza gehitu zaizkio, Udal Zerbitzu teknikoak egokitzeko. Bigarren solairuan, Pertsonal saila eta Kontuhartzaitetza jarri dira eta atikoan, gainontzeko sailak, Kultura, Gazteria, Euskara, Ongizate-Zerbitzua eta Hezkuntza, hain zuzen.

Azken Gobernu Batzordeak bestalde, hilaren 21ean Udaletxea arrasatearrek ikus dezaten zabaltzea erabaki zuen, azken batean, arrasatear guztion etxea da eta.

## Usteak uste...

Aste honetan azterketa eguna izan da Arrasate Telebistan. Datorren astean Arrasate Presseko kazetariei tokatzen zaie. Bai aldizkaria zein telebista hasi zireneko garaietatik panorama aldatu da apur bat.

Batera iazko gai kopuru berdintsua aurkeztu da eta bestean nabarmen gaudituko da beste deialdietako kazetarigaien kopurua. Eskaintza zabalduz doan neurrian, telebistak eta aldizkariak non aukeratu gehiago izango dute eta kalitateak ere gorantz egin beharko luke.

Azterketak eurak ere gogorragoeta landuagoak izan dira, telebistaren kasuan esate baterako, bost hilabeteko lanak ez bait dira alperrikakoak.

Examina egunak ATB eta Arrasate Pressen. Lehengoekin edo jende berriarekin, biek aurrera egingo dute. Lehenengoak, berriagoa izanda oraindik, izango bide du Diputazioaren lan-sustapenerako planez aprobetxatzerik aurrera segitzeko. Arrasate Pressi, ostera, akaso heldu zaio, astero zuen postontzietan egon dadin, langileen soldatak oradaintzeko modu berriak bilatzen hasteko tenorea.

Arrasate Presse, bestela, formula moduan balio duela erakutsi du. Aurrera egiteak merezi badu ea asmatzen dugun haren iraupena segurtatuko duen bidez.

*Joxe Aranzabal*

**KANPAIA**  
erretegia

Sukaldari arrasatearrak

Meagara bidean. GETARIA Tfnoa: 83 04 40

**E D E L**  
**TAPIZTEGIA**

*Gortina*  
*Alfonbra*  
*Koltza*

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA

## Epeleko errepidea

### Arrasateko Udalak aurreproiektua aldatzea eskatu

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Arrasateko Udalari Maltzaga-Durango errepide berriaren Epeleko aurreproiektua aurkeztu dio, honek bere aurreproiektuari buruzko eritzia eman diezaion. Arrasateko Udalaren azken Gobernu Batzordeak gaia aztertu ondoren, zenbait aldaketa proposatu dio Diputazioari. Epeletik datorren errepidea gaur egungo Arrasate-Bergara bidearekin Artxubi Baserri inguruan egingo den bidegurutze handi baten bidez lotuko da. Arrasateko Udalaren ustez, lotura hori ez da beharrezkoa. Arrasate-Bergara autobide berria egitean, trafikoa autobide berritik joango dela uste da eta Artxubiko loturak erabilerak gutxi izango du. Kontuan izanda errepide biak urtebeteko aldearekin egingo direla, Arrasateko Udalak, lehendabizi Etxezarretako bidegurutze egitea proposatu du, Artxubiko bidegurutze egin ez dezan.

Bestalde, Durango-Maltzaga errepideak, Kanpazarko bide zaharrenekin Sara inguruan egingo du bat. Diputazioaren aurreproiektuaren arabera, bidegurutzea handi eta zabalaren bidez egingo da lotura. Arrasateko Udalaren ustez, errepide berriak zaharrenekin horren lotura



ona izatean, trafikoa Kanpazartik behera errepide zaharretik etorriko litzateke. Arrasateko Udalak, herrira datorren trafikoa Musakola aldetik sartu nahi duenez, Kanpazarko bide zaharra eta Maltzaga-Durango errepide berriak lotura kaskarragoa izatea nahi du, errepide zaharretik ibilgailu txikiak baino etor ez daitezen.

Gogoratu Errepideen Plan Orokorren arabera Maltzaga Durango errepidea 1992an bukatuko dela eta Bergara Arrasate autobidea 1993an.

### ■ Etxarteak garbitzen

Asteazken goizean, Zurginkantoiko etxarte bat garbitzeari ekin zioten. Azken urteetan, alde zaharreko biztanleek etxarteak, estali egin dituzte. Arrasateko Udala, Zurginkantoiko etxeen jabe batzuekin akordiora heldu da, etxarte garbitu eta zabaltzeko. Udalaren asmoa, alde zaharreko etxarte guztiak garbitu eta zabaltzea da.

### ■ PERIaren erakusketa luzatu

Arrasateko Udalak herriko alde zaharra berregokitzeko plan bereziaren erakusketa uztailearen 23a arte luzatzea erabaki du. PERIak aldaketa sakonak ekar ditzake, beraz garrantzi handikoa da kaleko alde zaharrean bizi diren guztientzat. Onartuz gero, etxe bat bota egingo da, kantoi bat zabaldu, etab. Alde zaharreko norbaitek plan bereziaren berri izan nahiez gero, Udaletxera joatea baino ez dauka, zerbitzu teknikoetan bat ere arazorik gabe erakutsiko diote eta.

### JAIOTZAK

Agirre Amarian *Elaitz.*, Ekainaren 25ean.  
 Markel Ilzarbe *Garcia*, 28an.  
 Altuna Mongelos *Ane*, 30ean.  
 Esandero Calero *Aitor*, Uztailearen 2an.  
 Uribarren Dominguez *Markel*, 4an.  
 Zumalde Gantxegi *Leire*, 5ean.  
 Gomez Davila *Ruben*, 7an.

Camping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean

**Eco Gasteiz** -en

Cercas bajas 34, GASTEIZ

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



**HAURTXOAK**  
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4  
79 14 90 ARRASATE



## AKTk 128.150 milioi irabazi

### 1989 urteari dagokion balantze bateratua aurkeztu

Asteartean, Arrasate Kooperatiba Taldearen, AKT, 1989. urteko balantze bateratua aurkeztu zuten Javier Mongelos taldearen lehendakariak eta Jose Mari Ormaetxeak, lehendakari ohiak. GCM deritzana, Hezibidek, Lagun-Arok, Lankide Aurrezki Kutxak eta Industri eta Zerbitzu Taldeak osatzen dute. Industri eta Zerbitzu Taldeko salmenten herena Fagor taldeari dagokio.

Jose Mari Ormaetxeak azaldu zuenez, Arrasate Kooperatiba Taldeak, iaz, 253.088 milioiko salmentak izan zituen, aurreko urtean baino

%8 gehiago. Salmenta kopuru hone-tatik 47.220 esportaziori dagozkio. Taldeak 22.000 lanpostu ditu eta 174.175 milioiko errekurtsoak.

Javier Mongelosek, etorkizunera-ko asmoak azaldu zituen. 15 per-sonak osatutako taldea, 18 hilabete-tan zehar, AKTek egin beharko di-tuen aldakuntzak aztertzen arituko da. Proiektu zehatzik ez badago ere, kooperatibak sektoreka biltzea pen-tsatu da eta 7 edo 8 sail sor daitezke. Bestalde, taldearen gestio, teknolo-gia eta kanpora erabiliko duen irudia bateratuak izango dira.

### ■ Gazteen Informaziorako Bulegoa itxita

Garibai etxean dagoen, Gazteen Informaziorako Udal Bulegoa itxita egongo da hilaren 16a arte. Gogoratu bestalde, uztailean zehar, goizeko 10etatik 2etara egongo dela bulegoa irekita.

### ■ Argazki lehiaketa

Hilaren 16an ezagutzera emango da Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatutako argazki lehiaketaren irabazlearen izena. Hamasei izan dira lehiaketan parte hartu duten argazki-lariak eta guztira 41 argazki aurkeztu dira. Aurten lehenengoz antolatu den lehiaketaren gaia "Gazteak gazteen ikuspegitik" izan da.

### ■ Telefonoak konpontzeko

Deba Garaiko Kontsumintzai-leen elkarteak, *Acualdek*, telefono erabiltzaileei jakin erazi nahi die, *Telyco* enpresarekin akordioa sinatu duela, telefono supletorioen konponteta egokia ziurtatzeko. Telefono terminalen liberalizazioa eman zenetik, telefonoa konpontzeko arazoak izan daitezkeenez, *Acualde-Ucek* akordio hau sinatu du, erabiltzaileek ziurtatuta izan dezaten telefonoaren konponteta. Informazio gehiago *Acualdek* Uriburu kalean dituen bulegoetan jaso daiteke.

## AZAFATA-IKASTAROA GASTEIZEN

### 8. PROMOZIOA

☆☆☆☆☆☆ Matrikula irekita. Aukera bikaina. ☆☆☆☆☆☆

☆ Lanbide berria eta etorkizun handikoa.

☆ 22 hilabeteko ikastaroa.

☆ PRAKTIKAK erakunde publiko eta enpresa pribatuetan. Feria eta batzarretako azafata, gidari, harrera-egile, bidai agente, interpretaria, harreman publiko, etab.

# EUROLAN

Alava Jenerala, 10-4. / 9

Tfnoa: 23 30 32

## EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24,



### ■ AEDren tonbolako zenbaki sarituak

Azken alean AEDren tonbolan saria jaso zuten zenbakiak aipatzean, zenbait oker egin genuen. Urdaiazpikoa 1.986 eta 5.506 zenbakiak jaso zutela aipatu genuen. Saria jaso zuten zenbakiak ordea, 1.968 eta 5.502 izan ziren.

### ■ Industri-museoa aurrera

Arrasateko Udalak, industri museoa sortzea onartu ondoren, gaur egun gai honen inguruko adituekin harremanetan dihardu, ahalik eta informazio gehien batzeko asmotan. Xabier Bengoa, Udalako Kultur batzordeburuak, Monterroneko Jokin Zaitegi gela eta Ospitale Zaharra aipatu ditu industri-museoaren kokagune posibletzat.

### ■ Juan Marien elkartasuna

Uztailaren 21ean Arrasateko 80 Juan Mari-en elkartasun eguna izango da. Eguna ospatzeko, meza, txikiteoa eta Alkartu elkartearen bazkaria izango dute. Interesatuak, etxean jasotako paperak bete eta lehenbait lehen bidali behar dituzte.

### ■ Umezaintza irakasle bila

Arrasateko Umezaintzak Irakasle ikasketak amaituta duen irakaslea behar du, urtebetez 2 urtetako umekin lan egiteko. Interesatuak Umezaintzara jo beharko dute.

## Azokaren etorkizuna aztergai

*Azkenean, azoka dagoen lekuan geratuko da*

Aste honetako Arrasateko Udalarren Gobernu Batzordeak, besteak beste merkatuaren etorkizuna aztertu du. Udalak merkatuaren araudiari behin behineko onespina eman dio. Merkatuaren egoera hobetzeko proiektua egitea eta izan ditzaketen laguntzen berri jakiteko Eusko Jaur-laritzarenkin harremanetan jartzea erabaki du.

Jakina denez, Ikei enpresak merkatuari buruzko ikerketa egin zuen. Enpresa honen ustetan, merkatuak etorkizunik ez zuen eta merkatua ixtea proposatu zuen. Arrasateko Udalak, Ikei enpresaren azterketa eskuartean, merkatua istea erabaki zuen, baina arrasatearrek erabakiari gogor erantzun zioten.

Udalak, arrasatearren eritziaz jabeturik, Jose Antonio Muruamendiaren kontratatu zuen, merkatuari irtenbidea aurkitzeko. Murumendiaren ek, merkatua errentagarri nola bihur daitekeen, eskaintza eskaerarekin bat egiteko zer egin behar den eta baserritarren eskaintza indartzeko zein pausu eman behar diren aztertu du. Jose Antonio Murumendiaren ek egin duen ikerketaren arabera, merkatuan 30 milioiko inbertsioa egin beharko da, jasaten duen



saneamendu arazoa konpontzeko.

Gaur egun, merkatura jendea astean bi egunetan baino ez da joaten, asteazken eta ostiraletan, merkatu egunetan hain zuzen. Ostiraletan, bestalde, merkatu txikia egiten da. Muruamendiaren ek azken hau astean bi egunetan, astearte eta ostegunetan, merkatu plazan egitea proposatu du. Bere proposamena onartuko balitz, merkatuak astean lau egunetan izango luke jendea. Edozein modutan, epe laburrean, ez da espero erabakirik hartzea.



## IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA

Magisterio Eskola honek zera jakin arazi du:

1990-91 IKASTURTERAKO  
AURREINSKRIPZIO-EPEA UZTAILAREN 20arte ZABALIK  
DAGOELA

Informazioa: Irakasle Eskola. Eskoriatza. Gipuzkoa Tfnoa: 943 - 79 04 40

Ordutegia: 9-13

## LOREA

Oinetakoak  
eta poltsak

Paz 9, Tfnoa: 25 66 32  
GASTEIZ

## LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



Tren geltoki zaharra

## Autobus geltokia Arrasaten

### Bi kokagune aurkeztu Udalak Foru Aldundiari

Gipuzkoako Foru Aldundiak garaio publikoa arrazionalizatzeko duen egitasmoaren arabera, Arrasaten eskualderako autobus geltokia jar daiteke. Arrasateko Udalak sei leku aurikusi zituen autobus geltokirako, tren geltoki zaharra, Lau-Bide plaza, Eskatu (kontzezio ingurua) deritzana, Garibai plaza, A-10 (San Josepe ingurua) sektorea eta Metalurgika Cerrajera hain zuzen. Edozein modutan, azkenean Geltoki Zaharra eta Kontzezio ingurua baino ez dizkio aurkeztu Udalak Foru Aldundiari.

Diputazioaren planaren arabera,

eskualde ezberdinetan, bailara mailako geltokiak jarriko lirateke. Estazio hauek, bailara horietako komunikazioak lotuko lituzkete. Zenbait eskualdetako geltokiek, beste eskualde edo probintziekin lotura errazteko ere balio dezakete.

Geltokiaren behin betiko kokagunea Foru Aldundiak erabakiko du.

Diputazioaren asmoaren arabera, Udalak izango dira geltokiak gestio-natuko dituztenak, baina kostoa Foru Aldundiak finantziatuko du. Honako hau, Udala eta Diputazioaren arteko lehen harremana baino ez da izan.

## Gillen J. Azkoaga hil da


Asteazken arratsaldean hil zen Donostian Gillen J. Azkoaga, zortzi urtez Deba Garaiko Mankomunitatearen gerentea izan zena. 48 urte zituen Gillenek leuzemiak eraginda hil zenean.

Zarautzen jaio zen eta Zientzia Politikoetan lizentziatua. Ulgorren eta Ularcon lan egin ondoren, Deba Garaiko Mankomunitatean sartu zen lanera. Zerikusi handia izan zuen Gillenak D. Garaiko Udal-elkartearen sorreran, honen sustatzailerik sutsuenetakoa izan bait zen.

Azken bost urteetan Donostian egin du lan. Europako Ikaskuntza Zentruko zuzendaria zen. Baita Eusko Ikaskuntzako partaide ere. Gillenen gorpua ostegunean hilobiratu zuten Aretxabaletan. Hiletak, berriz, Donostian izan ziren.

### Arrain ugari hilda Urkulun

Azken egun hauetan, hainbat eta hainbat arrain agertu da hilda Urkuluko uretan. Arrainei heriotza zerk ekarri dien argitu gabe badago ere, virus ezezagunen batek sortutako gaitza delakoan daude. Urkuluko urtegiak, kutsadura arazorik nekez izan dezakeenez, aurrekoa omen da arrazoi logikoena.




### AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea  
Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

**Klaseak**  
**Itzulpenak**  
**Udako ikastaroak**  
**Bidaiak**  
**Elkartrukeak**  
**Udalekuak**  
**Prestakuntza**

*"Hizkuntza bat gehiago,  
muga bat gutxiago"*


Araba Etorbidea 4, tfnoa: 79 01 32 ARRASATE



Kontzesifio 2,  
Tfnoa: 79 14 06  
ARRASATE

**beatriz**  
oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



Epelde

Udaparte heldu dela eta, antza denez gaztetxo arrasatear batzuk oporrak prestatzen hastea erabaki zuten. Denda hartu, eta hara non jarri ziren Zarugalden, Muxibar parean. Ez zuten, ordea, egun onena aukeratu. Denda zabaldu orduko euria goian behean hasi, trasteak batu, eta formal-formal etxeratu behar izan ziren. Hurrengoan asmatuko al dute!

Joan den maiatzaren 5ean **Jose Arrotxa** eta **Pili Herrero** ezkondu ziren. Non, eta Musakolako San Isidro eleizan. Zorionik beroenak bikoteari!



San Juanetako alean *Tiempo* aldizkariak MLNV (hau da, Movimiento de Liberacion Nacional Vasco) delakoak kaleetako jaun eta jabe izaten segitzen duela dio, bere kontsignak eta, zabaltzeko. Horren adibidetzat, Portaloi inguruan ateratako argazki hau argitaratu zuen.


# LASAGABASTER

## JANTZIDENDA

**Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibal 9, Tñoa: 79 89 97





◀ Heldu zaio amaiera, bai, aspaldi honetan lagun izan dugun *Saski Naski* lehiaketari. Eta merezi zuen bezala agurtzeko, Aranzabali tokatu zitzaion sari handia emateko txanda. Saria, argazkian agertzen den HI-FI musika-ekipoa izan genuen, eta irabazlea, **Maidor Morras** (argazkian anaia agertzen den arren). Zorionak, Maidor!

## izen propioak

■ **Idoia Elexpuru**, 21, aretxabaletarra, Andra Mari kartel lehiaketa irabazi berri du. Idoia duela bost urte hasi zen pintatzen eta Gasteiz eta Aretxabaletan ikasi du. Besteak beste, Aretxabaletako aire zabaleko pintura lehiaketan, herri mailako sariak irabazi ditu. REM ikasketak burutu zituen eta kooperatibetan lanean urtebetez ari izan ondoren, gaur egun Maxi Eroskin dihardu lanean.

■ **Maite Balanzategi**, 25, arrasatearra, Udal ludotekari berria. Maitek pedagogia ikasi zuen Donostiako Zorroagan eta hau du bere lehen lanpostua. Donostiara joan aurretik Arrasaten burutu zituen BBB eta UBI ikasketak

■ **Jasone Diaz de Gereñu**, 23, eskoriatzarra, ATB utzi eta eskubaloari gogor helduko dio hurrengo urteetan. Hernani taldeko jokalaria, Espainiako selekzioan 25 bider izan da internazional. Andoingo Bideo eta Zine Eskolan errealizazio eta produkzio ikasketak burutu zituen.

Eta argazki honetan, ordea, lehiaketaren azken irabazleak ikusten dituzue. Okendo Kirolakenez zapatilak **Iraultza Alberdientzat** izan ziren; Ikatzen argazki makina **Imanol Martinezentzat**; Aranzabalen irrati iratzargailua **Eduarne Martinezentzat**; eta argazkian agertzen ez den arren, **Aitor Herizek** jaso zuen Meliaren bidaia. Zorionak denoi! ▶



**ERRASTI KRISTALDEGIA**  
Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE



Otalora 2, ARRASATE

# Britainia Haundira, ingelesa ikastera

## Gazte ugari bertako familietan hilabeteko egonaldiak egitera

*Aurtengo udan, Arrasateko ehun eta hogeitaz inguru joango zaizkigu Britainia Handira. Urtean zehar ingelesa ikasten ari izan ondoren, hizkuntza maila hobetzea da euren helburua.*

*Egongo dira euren kasa joango direnak, batez ere pertsona helduak. Baina gaztetxoenek, hogeitaz urte arteko neska-mutilek alegia, Ahizkek, Gk-k, eta Parlancek antolatutako egonaldiak aprobetxatzen dituzte.*

*Gehienak joanak dira; gutxi batzuek abuztuan helduko zaie txanda. Zuzen Britainia Haundira, Ingeles hizkuntzaren bila.*



• Heldu da autobusa. Mondragoetar gazte taldea Britainia Haundira bidean.

Ingeles ikasten diharduten arrasatearren artean, zabalzen ari da udako hilabete bat Britainia Handian pasatzeko ohitura, hizkuntza maila hobetzeko aprobetxatzen dutelarik.

Helduak beren kasa doaz; hogeitaz urte artekoentzat, ordea, *Ahizke*, *Gk* eta *Parlancek* antolatutako egonaldiak dira egokienak.

### AHIZKEren eskaintza

Arrasateko Hizkuntz Eskolaren bidez, lauerogetamar gazte arrasatear joan dira uztailean Britainia Handira. Eurentzat, aukera desberdinak:

Alde batetik, trukaketa sistema erabiliz, Lancaster-era joan direnak, Eskozia hegoaldera. Hiru aste ematen dituzte bertako familia batean. Aurrez, Aste Santutan, familia hartako partaide bat etorri ohi da Arrasatera, eta uztailean, gure neska-mutilei heltzen zaie

hara joateko txanda. Ez dute ikasketa programaziorik jasotzen; aktibitate batzuk antolatzen zaizkie, eta gainontzeko orduak bertako familiarekin ematen dituzte. Aukera honen kostua, 80.000 pta.

Badaude Lancaster-era joaten direnak ere, baina trukaketa sistema erabi-

**Hogeitaz urtetik beherako ehun eta hogeitaz arrasatear inguru joan dira uztailean Britainia Handira. Arazorik izanez gero, talde arduradunarengana jo besterik ez dute.**

li gabe. Goizez klaseetara joaten dira, lau ordu, eta arratsaldeetan hainbat aktibitate desberdin prestatzen zaizkie. Hiru aste, 100.000 pta.

Hirugarren aukera bezala, Worcester-era joan direnak, Londres albora. Hilabete pasatzen dute bertako familia

batean. Goizez lau ordu eskolara, eta arratsalderako aktibitate desberdinak prest. Kasu honetan, bidaiaren kostua 146.000 pta.koa da.

### GK-rekin hilabete

*Gipuzkoako Kutxak* Frantzia, Kanada, edota Britainia Haundira joateko aukera ematen du. Aurten, guztira hamabi eta hogeitaz urte arteko hirurehun gazte joan dira Gipuzkoatik; Arrasate-tik, ordea, zortzi besterik ez. Hori bai, mondragoetar guztiek Britainia Handira aukeratu dute: ingelesaren bidea.

Kasu honetan hamar hiri eta herri desberdinetara joateko aukera eskaintzen zaie, hilabete ematen dutelarik bertako familia batean. Programak ere, gusto guztietarako. Egun erdiko ikasketak egiten dituztenekin hasi, eta *Lincolnshire* kurtso berezia arte (irakasle baten hurbileko laguntzarekin).

Kostuak, noski, aukeratutakoaren neurrian. Bai 190.000 pta.koak, eta bai 213.000koak ere.

### PARLANCErekin Dublinera

*Parlance* akademiak, Arrasaten bizi den Eamon Fagan irakaslearen bidez hogeitaz gazte eraman ditu Dublinera. Eamon eurekin joan da hilabetea pasatzera, arduradun gisa. 160.000 pta.tan bidaiaria, egonaldia familia batean, astero 20 eskola-ordu, eta arratsalderako aktibitateak.

### Gehienak berriro itzuli

Britainia Haundira behin joaten direnek, gehienetan hurrengo urtean itzultzea nahi izaten dute. Hasieran arraroa egiten omen zaie hango bizimodua, familiak hemengoak baino

etxekoiagoak bait dira. Guztiok entzun ditugu Britainia Haundiko janariei buruzko kexuak.

Lehenengo egunak pasa ondoren, ordea, ederto moldatzen dira neska-mutikoak. Denetarik egongo da hango familien artean, baina kasu gehienetan ondo tratatzen dituzte.

Edozein arazo ematen bada, gainera, beti aurkituko dute nora jo; taldetan banatuta irteten dira hemendik, talde bakoitzak bere arduraduna eramaten duelarik; eta kasu guztietan, arduradun hori bere taldeari dagokion herrian biziko da.

Modan dagoen aukera: Britainia Haundian oporrak eta ikasketak uztartzea, batez ere ingelesaren mintza praktika menperatzeko bidean.



Ohitura desberdinak, toki berriak, eta bide batez, ingeles hizkuntza trebatzeko aukera.

## Denetarik, botikan bezala

**B**ritainia Haundirantz irten aurretik mondragoetar batzuekin elkartu ginen. Denetarik kontatu ziguten, gauza onak eta txarrak; baina hori bai, gehienak aurreko urteetan egondakoak dira, eta aurten berriz itzuliko. Juan Luis Avila, 18 urte, Aurtengoarekin, Lancaster-era doan hirugarren aldia da, trukaketa sistema erabili ohi duelarik. "Aste Santuan Mark etortzen da hona, eta uztaillean ni haren etxera. Ahizkeren bidez egiten ditut nire egonaldiak. Bertan ematen ditudan hiru asteetan, gehienbat ere kirol aktibitateetan hartzen dut parte, eta gainontzeko orduak Mark eta haren lagunekin pasatzen ditut. Ez naiz klaseetara joaten, horretarako urte osoa izaten dut".

Begoña Garai, 30 urte, andereñoa. Ahizkek pertsona helduentzat prestatzen dituen programetariko bati jarraituko dio. "Iaz ere hala egin nuen, eta ondo. Aurten Edimburgon emango dut hilabete 1'erdi, bertako familia batean. Goizez klaseak jasoko ditut: Gramatika, mintza praktika, entzumena, eta arratsaldeak turismo pixka bat egiteko aprobetxatu. Esperientzia positiboa dela uste dut, batez ere hüz egiterakoan soltura handia

hartzen delako. Hori bai, zure benetako helburua ingelesa ikastea bada, oso garrantzitsua da handik dabilzan euskaldunekin ahalik eta harreman txikiena edukitzea, bestela akabo. Familia gehienek tratu nahiko ona eskainitzen dute, edo ona. Badaude kasu arraroak, baina oso gutxi. Helduen programetan 115.000 pta. inguru ordaintzen da eskola eta egonaldiagatik, bidaia eta eguerdiko bazkaria bakoitzaren kontura".

Larraitz Larrañaga eta Gentzane Aldekoa, 14 eta 15 urteko neska arrasatearrak. Hauek dute paotxa, hauek. Lau urte jarraian, eta eta lauretan ere elkarrekin. Britainia Haundia bere osoan ari dira ezagutzen GKk antolatutako bidaiekin, aurten laugarren aldiz joango bait dira. "Knusthford, Beverly, eta Galesko Colwyn Bay-en egon gara. Aurten berriz, Warrington-era goaz. Goizez klaseetara, eta arratsaldez aktibitateak antolatzen ditugu: kirolak, irteerak. Arazorik egonez gero, beti daude monitoreak han. Ingelesa hüz egiteko ohitura loritzen da, eta bide batez, guk behintzat ederto pasatzen dugu".

Denetarik, botikan bezala. Bueltatzen direnean ere, makina bat kontu berri ekarriko dute.

**AUTO  
ESKOLA**

**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



# “Idazkariari garrantzi handiegia eman zaio”

**Jose Mari Eraña, Udaletxeko pertsonal burua**

*Jose Mari Eraña izan da orain arte Arrasateko Udaleko idazkari eta pertsonal burua. 1983an hasi zen Arrasateko Udalean lanean. Hasiera batean idazkari lanak bete behar ez bazituen ere, Udalean eman ziren zenbait aldaketak, horretara bultzatu zuten. Udaletxe zaharrera itzultzearekin batera idazkaritza utzi du.*

— *Arrasate Press: Idazkari lanpostua utzi berri duzu. Gustora egin al duzu lan hori?*

— *Jose Mari:* Egia esan, idazkari lana oso formalista da eta nik gestio lanak atseginago ditudanez, lanpostua pozik uzten dudala esan daiteke. Idazkari lana, pertsonal buruarekin batera egin behar izan dut eta lan zama handiegia izan dut. Edozein modutan, asko ikasi dut. Idazkariak Legea betetzen dela begiratzeko eta korporazioari lege aholkularitza eman behar dio eta bere eskuetatik informazio asko pasatzen denez, oso interesgarria da.

— *Zein da benetan idazkariaren eginkizuna?*

— Idazkariaren figurari garrantzi handiegia eman zaiola uste dut. Idazkaria, Udaleko beste langileen parekoa da. Legearen arabera, idazkariak Udal korporazioari, lege aholkularitza eman behar dio, fedatario publiko lanak egin behar ditu eta Udaleko organu garrantzitsuenen idazkari lanak egin, hau da, Gobernu-Batzorde eta Osoko Bilkuren idazkaria da.

— *Udal korporazioak aldatu egiten dira eta udal langileek hor diraute. Idazkariak ez dio jarraipenik ematen bertako lanari?*

— Idazkariak eta plantila osoak, ez bereziki idazkariak. Idazkariak korporazioari

osetzen dutenekin harreman estuak dituzenez, bereziki berak eman diezaioke jarraipena, baina ez berak bakarrik. Plantila osoak segitzen du bere eginkizunak betetzen.

— *Korporazio aldaketak badu eraginik, udal langileengan?*


— Bai, izan dezake noski. Korporazio bakoitzak, bere politika, helburu eta estilo bereziak ditu. Korporazioek, udal programa ezberdinak izan ditzakete, kanporako zein barrurako. Horrela, Pertsonal politika ezberdina izan dezakete, politika murriztailea edo hedagarria esaterako, horrek eragin handia du.

— *Aspaldi honetan, Arrasateko Udaletxean gazte asko sartu da. Nola eragiten du horrek?*

**“Arrasateko herriari eta Gorporazioari zerbitzu ona emateko egoeran gaude”**

— Plantila gaztetu egin da eta era berean, gaitu egin da. Oso plantila gazte eta kompetentea dela esango nuke. Ondo prestatutako pertsonala dugu.

Azken urteotan barne egitura, finkatzen joan gara eta momentu honetako plantila urte askotarako plantila izan daiteke. Korporazioari,



Jose Mari Eraña

laguntza tekniko-administratibo ona eman diezaiokeen plantila.

— *Sare informatikoa ere sortu duzue. Guzti honek, Udalaren eraberritze politika bati erantzuten al dio?*

— Dena lotuta dago. Plantila handitu eta gaurko beharretara egokitu da. Plantila horri bitarteko, baliabide materialak eman zaizkio, eta jakina, informatizazioa puntu oso garrantzitsua da honetan. Eta azkenik, aurreko biekkin batera, Udaletxearen berrikuntza eta egokitzea etorri da. Momentu honetan, lane-

Arrasateko Udaletxea ezagutuko, baina haiek ere zenbait urrats eman zituzten.

— *Arrasatearrak, Udaletxera inolako erreparatu edo beldurrik gabe hurbiltzen dira?*

— Gure nahia horrela izatea litzateke. Baina Udaletxean gauzak ez dira berez oso errazak izaten, legea zaindu beharrenden ondorioz, prozedura burokratizatuta egoten da eta. Hau dela eta, jendea erreparatu ez daiteke, baina ez bertako langileen beldur, gaien zailtasunagatik baizik.

— *Udaletxeetan, nork hartzen ditu benetan erabakiak, politikoei ala funtzionarioei?*

— Bietako bat esan behar banu, zalantzarik gabe politikoei direla esango nuke. Hala ere, goi mailako funtzionarioek eragin handia dute. Makailua mozteko orduan, politikoei, makailua eta aitzoa ematen diegu, baina nondik ebaki azken finen, politikoei erabakitzen dute. Guk proposamen ahalmen handia dugu eta praktikan eragin handia. Baina normala dela esan behar, horretarako gaude.

## Arrasateko atletak ondo Ordizian

### Bederatzi joan ziren Gipuzkoako banakako txapelketara


Lan polita burutu zuten atleta arrasatearrek pasa den asteburuan Ordizian. Gipuzkoako banakako txapelketa jokatu zen, eta gure taldeko bederatzi ordezkari izan genituen bertan.

Izarrak, berriro ere Ignazio Maizbide eta Jose Antonio Gay izan ziren.

Ignaziok 58 metro eta 52 zentimetrotara jaurti zuen txabalina, eta horrenbestez, urrezko domina erraz eskuratu.

Jose Antonio bigarren izan genuen 200 metrotako proban. Aldameneko argazkian ikusten duzuen bezala, borroka polita eutsi zuten Mikel Garcia errederiarrek eta gure atletak. Azkenean urrea Garciarentzat, baina Jose Antoniok, 21 segundu eta 56 hamarreneko denboraz, inoiz lortu duen markarik onena eskuratu zuen. Gora eta gora.

Gure gainontzeko atletak honako



postuetan sailkatu ziren: altuera-jaurtarian, Joseba Letamendi oñatiarra laugarren; disko jaurtiketan, Asier Fernandez Arroiabe laugarren; 100 metrotako lasterketan, Lorenzo Avila laugarren, eta Aitor Aznair zazpi-

garren; 400 metrotako hesi-lasterketan, Juan Carlos Martin seigarren; 3.000 metrotako oztopo-lasterketan, Luis Fernandez bergararra seigarren; eta 800 metrotako lasterketan, Jose Ramon Petreñas bederatzigarren.



### Jasone Diaz de Gereñu

Azken denboraldietan lehen mailako Heman taldearen atezaina izan dugu, eta 25 aldiz deitu dute Espainiako selekzio seniorrean jokatzerara.

Pasa den astean, Eusko Jaurlaritzak 510.000 pta.ko beka eskaini zion, eskubaloia lantzen segi dezan.

Horretan dihardu Jasonek, hain zuzen ere. Abuztuan Espainiako selekzioarekin egongo da konzentratuta, eta hainbat txapelketa jokatuko ditu European zehar.

Gero, datorren denboralditik aurrera Hemanira itzuliko da bizitzera, ikasketaren batzuk burutzen dituen bitartean, eskubaloia buru-belarri lantzeko.

oliak, **Artea**  
lientzoak,  
akwarelak eta  
eskulanak  
Ferreries 25

**Lore** lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

podiuma

**Aitor Arnaiz, edo ehun metroen erronka**

"Tontamentien heldu nintzen atletismora. Duela urtebete inguru, eskolan probak egiterakoan, gimnasiako irakasleari marka onak egiten nituela iruditu zitzaion. Animatu, eta Arrasateko taldearekin entrenatzeari ekin nion".

Hamazortzi urte ditu. Hasieran jauzi-hirukoitza eta ehun metroak egiten zituen. "Baina gutxi-gutxi lasterketa probetan gelditu naiz, ehun eta berrehun metroetan".

Markak erortzen ari dira, gainera; geroz eta azkarrago. "Duela gutxi ehun metroak hamaika segundu eta bi hamarrenean egin nituen; ez dago txarto. Eta orain hamaika segunduen bila nabil".

Aitorren lan ederra ikusita, Euskadiko selekzio juriarrak Bartzelonara deitu zuen, Espainiako Autonomi txapelketan 4x100 metroko erreleboa korritzera. "Egunkarietan irakurri arte ezin nuen sinistu. Atletismoan hain denbora laburra erama da, oso garrantzitsua izan zen niretzat, esperientzia ederra".

Pena arrasto bat ere nabari zaio, gauzak hain ongi ateratzen ari diren honetan. "Betik geldinuko zait berandu hasi izanaren koxka, urte batzuk alferrik galdu ditudalakoan edo...".

Uda partean, aire zabaleko denboraldiari ekion diote. Duela aste batzuk, gainera, Arrasate Atletiko taldeak ezinbesteko erronkari eutsi zion, Getxon jokaturako Euskadiko



taldezkako txapelketan. Lau puntu-gatik, gure mutilek maila galdu zuten. "Jendea oso triste gelditu zen. Taldeak lan ederra egin du azken urteetan, Euskadiko bospasei onenen artean egon delarik. Ez genuen hori merezi, baina tira, hori da kirolaren legea. Dagoeneko lanean ari gara, ahalik eta azkarren lehen mailara itzultzeko".

Emozio berezia sentitzen da taldearen izenean korritzen denean. "Banakako txapelketan erruak zuk ordaintzen dituzu. Erreleboetan, ordea, erru batek talde osoaren lana hondatzen du. Hori jakiteak erantzunkizun berezia pizten dizu".

Etorkizuneko ametsa, noski, Udalak eraiki nahi duen pista. "Berdin zait non egingo duten, baina beharrezkoa da. Orain arte Iturripeko instalazio makalak, eta orain hori ere ez. Ematza onak nahi badiugu, eta Arrasaten argi dago lortu daitezkeela, derrigorrezkoa da atletismo pista; lehenbailehen".

**Kirol iharduerak**

Arrasateko Udalaren ardurapean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, aurtengo udan honako kirol iharduera hauek antolatuko dira: igeriketa, waterpolo, irristaketa, tenisa, boleibola, yoga, judoa, aerobika, gimnasia erritmikoa, eskalada, badmintona, equasha, rugbya, neskato futbola, piraguis-moa eta wind-surfia.

Argibideak eta izen emateak, Udaletxe edo Kiroldegian.

**Aitor Zabaleta**

Lan ederra ari da burutzen pilotu bergararra, aurtengo Espainiako Mendi Txapelketan. Igandean Almerian jokaturako igoeran bera izan genuen jaun eta jabe. 2 minutu eta 57 segunduko markaz, aurretik zegoen errekorra 23 segundutan jo eta txikitu egin zuen. Horrenbestez, Aitor Txapelketako liderra dugu 149 punturekin, Luis Martinezekin berdinduta badago ere.



**K**abia  
**Altzariak**  
 Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

**M** MIKEL  
 Eskaiola, pintura eta kortexoko apainketa  
 Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75  
 ARRASATE

## Lau rockeroren heldutasuna

**H**ilabete gutxiren bueltan, euskal rockaren lau protagonista ezagutzeko parada izan dut. Bata Marino Goñi, *Musikantoi* saioan Oihukari buruz prestatu genuen erreportaian. Bigarrena, Josu Zabala, Monterronen izan zen euskal musikari buruzko mahainguruan, eta AEDk ondoren eskaini zigun afarian. Hirugarrena Kaki Arkarazo, Arrasate Press-en San Juanetako ale berezirako egin genion elkarrizketan. Eta azkena, Fermin Muguruza, joan den ostira-lean *Musikantoin* eman zen elkarrizketa luzean. Laurak ere euskal rockaren puntan dabilzanak. Eta laurak, egindako bideari esker, aurrerantzean egin nahi dutenaz ondo jabetuak, helduak.

Izan ere, euskal rockaren eztanda

gertatu zela laster izango dira hamar urte, eta denbora hori ez da alferrik joan.

Hastapenetako urte haietan presa zegoen ideia berriak kaleratzeko eta freskotasuna izan zen balore nagusia, sarritan kalitatearen edo landutasunaren kaltetan. Geroago etorriko zen krisialdia, birplanteamenduen garaia eta gauzak ondo egin behararen kezka. Oraingo hau, berriz, heldutasunaren garaia izan daiteke. Neuk behintzat ez dut zalantza handirik Hertzainak-en eta Negu Gorriak-en azken diskoak borobiltzat jotzen ditudala esaterakoan.

Marino, Josu, Kaki eta Ferminen bete-betean hartu dute parte bilakera horretan, beraren protagonista, eragile eta ondorio direlarik aldi

berean. Marinok Soinuan egin zituen lehen urratsak eta Oihukan zuzendu gero hasierako hutsegiteak. Josuk Hertzainak-en egin ditu bereak, lehen eta orain. Kakik mila arlo urratu ditu, curriculum ikusgarria osatu arte, orain batez ere M-ak eta Negu Gorriak-en diharduelarik. Ferminek, azkenik, Kortaturekin garrantzi handiko lana egin ondoren, Negu Gorriak-en ari da orain jo eta ke.

Laurengan somatu dut gauza bera. Egindako lanarekin konforme daude, bataz beste, lan horrek izan dituen akatsez ere ondo jabetuak. Aurrerantzean nondik nora jo ere badakusate, eta indarrean daude, lanerako gogo handiz.

Agian, euskal rockaren urrezko aroaren atarian gaude...

Mikel Irizar

MARCELINE i SILVESTREk  
aurkezten du

# MISCELLANIES

Barietate eta zirko ikuskizuna

Uztailak 20, ostirala  
Arratsaldeko Setan  
MONTERRON PARKEAN  
Sarrera doan



# TURKIAKO

## Dantza Talde folklorikoaren emanaldia

Uztailak 21, larunbata  
Gaueko 10.30etan  
MONTERRON PARKEAN  
Sarrera 300 pta.



# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Guipúzcoa

# Elebitasuna

Zer da elebitasuna? Nor da elebidun? pertsonak, gizartea, lurraldea? Zein egoeratan ematen da? Jarrera mota al da...? Betiko galdera hauek erantzunik gabe dira. Hona hemen Txepetxek dioena: "Hainbeste esanahi eman nahi izan zaio elebitasunari, une honetan ez du inolako esanahi zehatzik".

Hala ere, elebidunak badaudenez, ukaezina da elebitasuna ematen ari dela.

## Elebitasun motak

Elebitasuna benetako arazoa izaten, komunitate sozialean zehar hedatzen denean hasten da. Elebitasun mota ezberdinak direnez, ondorengo sailkapen hau litzateke bidezkoena:

- Elebitasun Indibiduala
- Elebitasun Soziala
- Lurralde elebitasuna

Lurralde elebitasuna ematen bada, elebitasun soziala eta indibiduala ere ematen da.

*Elebitasun Indibiduala:* Pertsonengan ematen da eta arlo sozialean ez du

eraginik. Eguneroko funtzio ezberdinak betetzeko hizkuntza nazionala erabiltzen da. Bigarren hizkuntza, norberaren jakituria maila edota behar zehatzei erantzuteko soilik izan da ikasia. Gure artean ingelesarekin gertatzen ari dena dugu kasu honen lekuko.

*Lurralde Elebitasuna:* Edozein lurralde linguistikoki bi zati ezberdinetan banaturik dagoenean ematen da. Batean, "A" hizkuntza edo Ama-hizkuntza izango da nagusi eta bestean, "B" hizkuntza edo inposatutakoa.

*Elebitasun Soziala:* Lurralde berean bi hizkuntza erabiltzen direnean ematen da. Batetik Ama-hizkuntza eta bestetik kanpotik ezarritakoa. Berehala gatazka linguistikoa sortzen da. Inoiz ez bait dira erabiltzen bete-behar guztietarako neurri berean bata zein bestea. Bi hizkuntzen arteko funtzio sozial ezberdinen banaketa gertatzen da. Ordura arte Ama-hizkuntzak beteriko zenbait funtzioekin jabetzen da, inposatutako hizkuntza. Guzti honen ondorioak honako

hauek ditugu:

Natiboek, kanpotik inposatutako hizkuntza ikastera behartuak daude, bestela marginatuak geratuko lirateke eta.

"B" hizkuntza edo inposatutakoa, Hiri, industria, administrazioa, botere eta prestigio handiko funtzioak betetzen hasten da, hots, funtzio nazionala. Ama-hizkuntza, ordea, baserri, familia, auzo eta prestigio baxuko funtzioak: funtzio lokala, alegia.

Horrela ba, inposatutako hizkuntza berehala hasta da aipaturiko funtzio lokal hori eta familia funtzioa ere betetzen, Ama-hizkuntzaren iraupena biziki arriskuan jarritz.

Egoera honen aurrean, irtenbide bakarra normalizaziorako bidean, lurraldetasun linguistikoa finkatzea da. Honek Ama-hizkuntza berreskuratzea eta bestea baztertzea suposatzen du. Batak aurrera egingo badu, besteak atzera egin behar.

Atalataikoan



## ARRASATEKO SAN FRANTZISKO XABIER IKASTOLAK

### PSIKOLOGOEA

behar du

(Erreferentzia: ISFX-P)

Zentruko Zuzendari Pedagogikoaren esanetara eta lau profesionalen osatutako berrezierako arearen barruan, Orientabidezko Departamentuaren ardura hartuko du bere gain.

Ikasketarako zailtasunak detektatzea, tratamendurako programak zuzendu, koordinatu eta zehaztea, eta eskolako orientabide pedagogikoari buruzko aholkularitza izango dira postuaren betebeharrak garrantzitsuenak.

Antzeko lanetan bi urteko esperientzia metatu duten tituludunentzat egokitzen da postu hau.

### LOGOPEDA

behar du

(Erreferentzia ISFX-L)

Zentruko Orientabide-Departamentuan integratuko da, postuaren egitekoak ahozko berreziera-programak lantzea eta beroien aplikazioa izango delarik, bereziki eskolaurreko ziklorako.

Postu hauetara egokitzen dira Logopediako titulazio ofizialaren jabe izanik, Pedagogia, Psikologia edo Magisteritza egina daukaten tituludunak.

Bietarako nahiezkoa da Euskara idatzia eta ahozkoa menderatzea, EGA tituloarekin batera.

Selekziozko prozesua irailaren lehen hamabostaldian burutuko da.

Mesedez, interesatuek, ahalik eta azkarren datu pertsonalak eta profesionalak bidali, erreferentzia adieraziz, honako helbide honetara: LKS Kontsultorea, Giza-Baliabideen Area, 34. Apartatua. 20.500 Arrasate.

# Alkohola eta nerabezaroa

**E**nkuestatutako 987 ikasleetatik, %82,57a, hau da, 815ek alkohola noizbait kontsumitu du; 172 baka-rik, %17,43 hauetatik inoiz probatu ez dutela diote.

Edan dutenen porzentaia mutilen artean nesken artean baino handiagoa da.

		MUTILAK		NESKAK	
ALKOHOLA PROBATU DUTE	BAI	490	%88,9	323	%74,5
	EZ	61	%11,1	111	%25,5
		551		436	

Geroxeago ikusiko dugunez, probatu zuten guztiek ez dute edateko ohiturarekin jarraitu.

Urte gutxi zituztelarik edan zuten lehenengoz alkohola eta berdintsua da bai neska eta mutilentzat ere. Gehie-

nak, batz besteko, 11 urterekin hasi ziren, eta kasu askotan esan zuten 6, 7, eta 8 urterekin probatu zutela esan ziguten; beste batzuk berriz, gutxienak, beranduago hasi ziren, hau da, 14, 15 eta 16 urterekin.

Talde handi batek alkoholarekin lehenengo kontaktuak etxean izan zuen, konkretuki mutilen artean %62,04ak eta nesken artean %70,15ak familiarreko jaietan hasi ziren. Nabarmena da etxearreko ohiturak eta jaiak, kontsumo honen hasieran.


Gutxiago dira lagunekin edaten hasten direnak. Mutilen artean %31,22, eta %22,77a da nesken porzentaia.

Neskek zaletasun argia agertzen dute txanpainarengatik, askorentzat %70, hau izan bait zen lehen edaria, mutilek berriz, %45ak bakarrik kontsumitu zuten eta honen atzetik garagardoa %22ak eta ardoa %21ak.

Gutxitan erabiliak izan ziren lehenengo probaketa hauetako likorrak, gaur egun hain erabiliak diren nahasketa exotikoak, bestealde.

Sagardoak, laugarren tokia betetzen du aukera egiterakoan txanpaia, ardoa eta garagardoaren atzetik.

*Eukeni-Arantxa*



## Construcciones ARRASATE S. L.

(Lehen Construcciones CODIMA )

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46  
ARRASATE

# Le Tour 90

Egunero egunero telebista ixotu eta bertan utztail guztietan kirolzale den orok parada polita ikuskizun bikain hau ikusteko. Puri purian eta puntan dabilzan ziklista profesionalak ikusi eta euren izenak gogoratuko ditugu zati batean. Gureak, Marino, Gorospe, Indurain, Lukin, Pello, beste batzuen artean, hor ari dira tropelaren artean borrokan eta kontrolatzen. Aste hau erabakiorra izan da, Montblanc, Magdalaine eta Alpe d'Huez mendateak igo ondoren, ondorengo egunetan ere zeresanik izango da Pirineoetan, euskaldunak ondo baino hobeto ezauketan ditugun mendietan.

Ikuskizun zoragarri eta aparta honetan ez dira faltako ikurriñak, ez eta txalo bero eta uluak ere.

Bihoakie gurei eta gureak ez direnei ere gure eskerrik beroena eta



Aurretik ihes eginda Cubino, Indurain eta ikusten ez dena Mauleon.



Jarraian Marino eta Fede. Guztiak Gatzaga igoten, Benta Friara orduko.

Frantziako errepide zail horietan zortea oparo. Asko aipatzen dira Pensec, Alcalá, Lemond, Bugno eta Pericoren izenak.

Indurain eta Gorospe Pericori laguntzeko baino ez; bestalde, *Once* eta *Seur* taldeak sekulako Tourra

egiten ari dira. Aipagarria da Pello Cabestanyren tenporada.

Sorpresa bat baino gehiago izanen ote da?

K. U.



## ARRASATEKO SAN VIATOR IKASTOLAK

Honako irakasle hauek behar ditu:



### ✓ OHoko irakaslea

- Ingelesa ezagutzen duena
- Talde elebiduneta izandako esperimentzia kontuan hartuko da.

### ✓ OHoko irakaslea

- Musika dakiena

### ✓ OHoko irakaslea

- Natur Zientzietako adarrekoa
- Egun erdirako

Lanpostu hauetara aurkeztu nahi duenak, datorren uztailaren 18an -asteazkena- San Viator Ikastolan eta goizeko 9etan izango diren frogetara aurkeztu beharko du, curriculum-a ekarriz.

# Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

"EDERTU"  
ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

# ARRASATE PRESS

77 05 65

# Indarberritu den lehoi arrasatearra



## RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahi lituzke.

• 1929.ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m<sup>2</sup> koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

**RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai..**

**RONEO UCEM**

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

# Aste gazte

## Gaztaroko sindromearen jatorria eta sendabidea

Bi zuribide besterik ez dut aipatuko neure burua edertzeko. Ez naiz ni, gizartea bera ez bada, gazteria patoioigizatzen duena. Eta hemen dudan eginkizuna ez da adituarena, teorigilearena baizik: hots, eskutan dauden arazoak agertarazteko, besteei eta bere buaruari galde egiten diena.

Lehendabiziko aitzakia begien bistakoa da: denok ongi dakigunez, gure garai honetan gazteria arazoa baino ez da, bere apaingarri omen ziren ezaugarriak (altxor jainkozkoa, lainotasuna, zintzotasuna, hezi-gaiztasun prometeotarra, erromantizismoa eta esku-zabaltasuna...) galdurik. Alabaina, zer da benetan: gazteriaren arazoa gizartearekiko, ala gizartearen arazoa gazteriarekiko? Ez da hitz joku soila, jakina. Lehendabiziko esanak ("gazteriaren arazoa gizartearekiko") gazteriari leporatzen dio arazoaren jatorria, "zoritxarreko" gizartea jartzen duelarik pairatzaile: hau da, gazteak dira "gaiztoak" eta gazte ez direnak "zintzoak" pelikula honetan; eta ez dira gutxi hala uste dutenak...

Bigarren esanak ("Gizartearen arazoa gazteriarekiko"), ordea, alderantzizkoa azaltzen du. Gazteriaren arazoa gizarteak berak sortarazten du, bere harremanak gaiztatuek, bere egitura patologikoak. Eta kaltea jasotzen duena ez da gizartea, jakina, hala esaten badute ere, gazteak, gazteria baizik, haiek bait dira pelikula txar honetako biktima bakarra...

Enrique Gil (Soziologoa)



## Lehiaketak

• "San Juan de la Cruz" Poesia Nazionalako I. Saria. Lanek, gutxienez, 600 bertso eduki behar dituzte. Gazteleraz. Gai libre. Sari bakarra: 500.000 pta., Oteizaren trofeo-eskultura eta obraren argitalpena. Aurkezteko epea: urriaren 1a.

• "VIII. Tene Mujika" Literatur kontaketa Labur-Lehiaketa. Gai libre. Lanek, 6 eta 30 orri bitartekoak izan behar dute. Sariak: 1.) 125.000 pta., 2) 95.000 pta., 3) 70.000 pta. eta 18 urtetik beherako bi idazleentzako 20.000 pezetako akzesita. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 30era arte.

• II. Gernika Piano Lehiaketa. Goi mailako Euskadiko interpretarientzat (9tik 10. ikasturtera artekoak). Sariak: 1.) 55.000 pta. eta kontzertua, 2.) 25.000 pta., 3.) 10.000 pta. Izena emateko azken eguna: abenduaren 14a.

## Bidaiak

• "Transcantábrico gazte": 14 eta 26 urte bitarteko gazteentzat, Kantabriar kostaldetik 8 eguneko bidaia. Trenz. Prezioa: 16.500 pta.

## Musika

• Uztailaren 17an bai Donostian eta baita Gasteizen ere JAZZALDIK hasiko dira (Jazz-zaleoi zaila jarri digute aukeratzea).

## Mintegiak-Arteleku

• "Arte Esperientzia eta Irudikapenaren Estrategiak". Walter Benjamin-i buruzko Mintegia. Zuzendaria: Francisco Jarauta. Uztailaren 16tik 20ra arte. Hitzaldiak goizeko 11etan izango dira. Sarrera libre.

• "Irudiaren Teoria mass-mediatan". Zuzendaria: Roman Gubern. Irailaren 10etik 14era arte. Hitzaldiak goizeko 11etan. Sarrera libre.

Informazio gehiago:  
Gazte Zerbitzuan,  
77 00 65 Tfnoan.


## VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE



## ZENBAKI

Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

Basabe industrialdea  
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)  
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa  
metalikoak  
Otzaratzarrak  
Giltzak gordetzeko armairuak  
Erremintak eramateko gurdiak  
Erremintak gordetzeko  
armairuak  
Lan egiteko aulkiak

**ETXEBIZITZAK**

- Cambrils-en (Tarragona) apartamentua alokatzen da. Hondartzatik 150 metrora. Tfnoa: 945- 22 38 03 Natividad de Santiago.
- Torreveijan bungalow-a alokatzen da ekain, uztail eta irailean. Tfnoak: 79 15 74 eta 79 30 47
- Loramendi kalean 6.pisua salgai 80 m2. Amuebletuta. Tfnoa: 79 24 89 (arratsaldez)
- Salouko Pinedan apartamentua alokatzen da. Tfnoa: 79 45 74.
- Laredon apartamentua alokatzen da. Informazio gehiagorako deitu 79 52 80 tfnora.
- Neska ikasleek pisua behar dugu alokatzeko. Tfnoak: 72 11 43 Begoña, eta 55 45 35 Juana.
- Pisua alokatzen da Erguinen. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 40.000 pta. hilean. Tfnoa: 211225 10etatik aurrera.
- Alde zaharrea etxe merkea erosiko nuke. Deitu goizez edo arratsaldez 77 09 40 tfnora.
- Neska ikasle taldeak alokatzeko pisua behar dugu Arrasaten. Harremanetan jartzeko deitu 69 08 19 tfnora.

**LANA**

- Emakume euskaldunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko litzuzke. Tfnoa: 79 07 73.
- 18 urteko gazteak udako hilabeteetan edozein lan egingo luke. Tfnoa: 79 51 95.
- Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesa-

tuek 79 98 34 tfnora deitu, arratsaldeko 13.00ak eta 16.00ak bitartean.

- Eskoriatzan klase partikularrak. Mailak: OHOkoko kurtso guztiak. Ek IEE-BBB, euskarazko klaseak ekaina, uztaila, abuztua. Arrazoa: Tfnoa: 79 17 19. (gaueko 8etatik 10etara)
- Andra, 40-50 urte bitartekoa, etxeko lanak egiteko behar da. Interna. Tfnoa: 79 16 63
- Gazte unibertsitariak udako hilabeteetan OHO ikasten ari diren neska-mutikoei klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 51 95
- Lizentziatuak klaseak emango litzuzke: matematika, fisika eta kimika. IEE, LH, BBB eta OHO. Tfnoa: 79 27 74
- Neska euskaldunak umeak zainduko litzuzke udako hilabeteetan. Tfnoa: 79 98 30.
- Ikasle unibertsitariak udako hilabeteetan OHOkoko klaseak eta IEE-BBBeko ikasleei matematika eta fisikako klaseak emango lizkieke. Tfnoa: 79 52 31.
- Ikasle unibertsitariak klaseak emango litzuzke. IEE eta OHO maila guztiak. Tfnoa: 79 37 96.
- 19 urteko gazteak uztailan edozein lan egingo luke. 79 19 82 telefonora deitu.
- Neska euskaldunak, udaran umeak zainduko litzuzke. Esperientzia. 42 31 95. Ines. Donostia

**SALEROSKETAK**

- R 12 egoera onean eta merkea salgai. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- BMW batentzako mailetak erosiko nituzke. Tfnoa: 79 17 21. Iñaki.
- Camping-denda handia salgai. 2 logela, egongela eta portxea. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.

- Camping-erako auto-erremolkea salgai. Tfnoa: 79 55 22. Carolina.
- Idazmakina salgai. Eskuan eramateko modukoa. Ia berria dago, ikasketak uzteagatik saltzen bait da. Tfnoa: 79 54 28. Leire.
- Camping-denda familiarra salgai (4 plaza), hozkailu txiki eta guzti. Deitu 79 24 66 tfnora.
- 90 zm-ko bi ohe, bi gaumahi eta 1,60 mko armairua salgai. Egoera onean eta merkea. Tfnoa: 79 33 56.

**DENETARIK**

- Tarota, kartak eta eskua irakurtzen ditut. Interesatuak deitu Tfno honetara: 76 50 58
- Egunero goizez Bilbora joan behar dut eta ez daukat autorik. Zeurean lekurik baduzu, deitu 79 32 02 telefonora. Gastuak erdibana. Deitu lehenbailehen.
- Beno, beno, jakintsu hori, baliteke jo ta fuego euskal esamoldea izatea, baina badaezpada zuk ere ez duzu zure izenarekin izenpetzen. Antxon (Gatzaga).
- Jo ta fuego, jo ta fuego, eskontzen zaigula gure Josebatxo eta zeinekin eta norekin. Eskoriatzako neskiakin. Goñi.
- Iratxek eta Eiderrek hartu: Oporrak ondo pasa dezazun itxaropen guztiakin, agur bat.
- Irungo ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Arrasateko edo inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldateta egingo luke. Interesatuak dei dezatela tfno. honetara: 79 26 59
- Laudioko ikastolan kontratu finkoaz lanean ari den andereño batek Durango-Arrasate inguruko ikastoletako irakasleren batekin aldateta egingo luke. Tfnoa: 94- 681 40 25

**ARRASATEN HILDAKOAK**

Ma Teresa Alberdi Zubizarreta

Uztailaren 2an. 47 urte.

Roman Garcia Moro

Uztailaren 3an. 78 urte.

Jose Arana Berasategi

Uztailaren 4ean. 63 urte.

Ricardo Amorrortu Ortega

Uztailaren 4ean. 29 urte.

Agustin Altuna Agirre

Uztailaren 7an. 78 urte.

Inocencio Calleja Perez

Uztailaren 8an. 75 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,

20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 66

## Famauen ahotik

### Joxepa Gallastegi, Peixotoren ama



#### Eskola kontuek

Eskola kontuen lehenengo hemen ibili zan, Musakolan eta Calvo-az. Gero, hamalau urterarte etxien lan eñ auen eta hamalau urtekin eruen euen Ulgorrera eta Ulgorren asko merezi auela eta merezi auela eta Eskola Profesionalien sartu euen eurak, Ormaetxea eta Alfonso Gorroñoñoitia eta horretxeik. Nik ondion esan ein nutzien: "bai zueik hor sartu dozue baiñe guk ez daukou eskolarik horri jarraiketako" eta hilero hilero, eurak... notak eta danak eurak jarraiketean eutzien. Eta, holaxe akabau auen maestria.

#### Gero Ecuador-rera, mixiolari

Gero Ecuador-rera juan zan mixiolari. Hiru urte ein zittuen Ecuadorren mixiolari Los Rios-en. Eta han "escuela profesional azeleru bat" montau eben. Harrazkero egon die beste semie eta andrie eta ikusi dauè hak fundauteko eskolie. Ba han hiru urte ein eta bestealdera bueltau zan, montau zan orduen guardazoillek etorritte ezen etxera. Aranburuzabala ta, Albisu ta.. horreik detenidu zittuen orduen eta gurie justu justuen librau zan.

#### Atentaunen notiziaz Larzabali atakiek emon

Beste anaiek deittu eutzen Larzabali telefonoz. Eta esan auen "juen zaitteze Larzabaleana telefonotik jausi ein ddok eta". Haxe notizia hartu auenien emon euzen atakiek telefonuen bertan.

Joxepa Gallastegi

#### Lehen oso giro ona

Bestealdera etorri tte urtebete barru ezkondu ein zan da gero ba gu geu be sarri tte bestela be jende asko jueten jakuen ta oso giro ona egoten zen beti. Han dana libre eukien da... Gero familixie be euki euen: bi mutil dauko, hamabost eta hamaike urtekuek. Txomin dde bixek euki zittuen konfinaute baiñe bestela bizimodu normal-normala eruen izen dau.

#### Oin hamaike urte atentaue

Eneruen 13en izen auen atentaue eta oin itxu. Lehen zazpi urteaz tirogomiaz tuerto geratute auen eta bestie galdu auen eta oin ba argittasuene ero distingiruten dau baiñe ikusi ixte bapez. Ibilli, bakarrik eitten da baiñe...

Bestela be asko daukd: buruen, eskue bat inutil dauko, gero pulmoie be bestante hartute dauko...asko dauko.

#### Persekuziño haundirik ez baiñe billurre bai

Atentaue izen zanetik eta harek ez dau euki persekuziñorik. Ointxe urtebete deteniru euren, -neu bertan tokau nintzen, gainera-baiñe egin bat eñ eta jarein eutzien. Baiñe halaxe be

billurre badauko, e, edozein egunetan juengo ete dien.

Estepan Plazaola eta Jexusmari Garai

## Zelebrequerixak


-Lehengunian edarra pasau jatan, baina, enajuan suerte makala euki.

- Ze pasau jan ba?

- Bentanatik begira nagola etxak pa urrezko erlojua jausi. Eskerak aintxintxinka eskilarak jatxi eta lurra jo baiño lehenago harrapau nebana; bestela jota bertan txikuzen dok.

- "Bueno hi, hazur hori sartuixok beste bati.

- Eske erlojua bost minutuko atrasuakin jebillan.



Donostiatik Plaentziara zetorren baten Fernadok treneko bentanatik ahuntz bat ikusi ei zeban larrian eta berakin zetozen plaentziar batzui esan ei zotsen:

- Horretxek jaukak Ulixaren antza.

Berak aittatutako izena Eibarko jaun dirudun batena ei zan eta Fernandok esandakua haren belarritarra aillegau ei zan.

- Hik esan ei dok nik ahuntzan antza daukatela.

- Nik eztot sekula holakoik esan -kontestau zotsan Fernandok koloriak mudau barik-, oker kontau dotsue alkahuete jente horrek.

Nik esan neban ahuntzak daukala zure antza eta inor haserretzekotan ahuntzak haserretu bihako leuke.

Juan Martin Elexpuru

comercial  
san juan

Garibai 12,  
Tfnoa: 79 13 05

hikein  
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,  
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE





S. Jose ikastetxeko ikasleak 1964

**I**rakasleak S. Viatorreko fraileak ziren arren, *S. Jose ikastetxea* deitzen zen artean. Urte haietan

Batxilergoko bostgarren eta seigarren kursoak hasi ziren ematen. Ikasleek hemen ikasten zuten eta ikasturte amaieran Gasteizera joaten ziren azterketak egitera, Ramiro de Maeztu Institutura, gaur egungo Eusko Legebiltzarra dagoen lekura.

Argazki hau 1964ean atera zen, Mendiaren lorategian, oraingo S.

Viator ikastola dagoen lekuan. Goiko etxea Gazteluondokoa da eta gazte dotore hauek Batxilergoaren 5. kurtoa amaitu berri zuten.

Zutik, ezkerretik hasita, Jose Luis Agirre, Jabier Azkarate, Jabier Larrauri, Jose Luis Garmendia, Pablo Etxebarriarteun, Jose Ramon Gorosabel, Agustin Marino, Juan Jose Saenz, Miguel Angel Vazquez, Jose Ignacio Iarza, Miguel Angel Arrieta eta Juan Luis Ezkurra.

Jarrita, ezkerretik, Carlos Iarza, J. R. Bengoa, Jabier Ansoategi,

Jose Mari Velez de Mendizabal, Fernando Gomez Sastre, Miguel Angel Romero, Jabier Zubizarreta, Juan T. Iriarte eta Jose Francisco Uribetxebarria.

Seigarren kurtoa ere hemen egin zuten, eta S. Josen hamaika urte inguru eman eta gero, hortik zehar sakabanatu ziren, batzuk ikasten segitzeko, besteak lanean hasteko. Denetarik dago euren artean: medikuak, abokatuak, idazleak, injineruak, polizia bat, bestea ekonomista... Denak bizirik daude eta euretariko zortzi Deba Garaitik kanpo bizi dira.

**PUB  
HAIZEA**



**ENARA**  
OSAGARRIAK


Maalako Errabala 21  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



B  
e  
g  
i  
-  
F  
l  
a  
s  
h



*Txukun ari zen Xipitri burdindegian, Mari Padera sartu denean...*



*Ahoa bete iltze gelditu da baina, honek aldegingakoa. Zer erosi du gure Mari Padera laztanak?*

ENBIDOtik hartua, ELKAR-en baimenarekin

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

**MIREN**

**APAINDEGIA**

Zarugalde 23, 2. Ezk.  
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

## Hogeitaboskarren urtebetetzean, hiretzat

Litezkeen erantzun guztien artean  
babesik gabe hartzen nauen bakar hori  
hautatu dun, maite: isiltasuna.

Gogoz jarrairiko zoriona opa dinat  
eguneroko gura, lan ta nekealdiz  
eraikitako mende laurden berria.

Biguna izan bedi gurekin denbora,  
samurtasun aldeko azken gudariok,  
biguna, halaber, hire edertasunagaz.

Eta jar diezazkigun bidean sarritan  
elkar ikusteko parada eder, samur,  
anbiguo samarrak, filmetan bezala

Felipe Urizar

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**J. M. Heriz**

**Konpromezurik gabeko  
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua Arrasate

■ **Astegoiena.** Larunbat goiza zen, Euskadi Irratian. Programa berri baten jaiotza. Sintonia entzun eta gero, azalpen luzeak saio berriaren izena esan aurretik. Argi utzi nahi zuen esatariak, non-bait, berak ez baizik eta bestek aukeratu ziotela izena eta hor zebilen, bueltaka, halako batean zorioneko izena - *Astegoiena*- jakin erazi zigun arte. Moteilak, ordua zuan!

Antza denez, larunbat goizero izango dugu *Astegoiena* Euskadi Irratian, bi orduz. Nolakoa izan zen ezin dezaket esan, hortik aurrera apenas entzun nuen eta. Hasiara, behintzat nahiko pobrea. Esataria, izenetik hasita, ez badago konbentzituta eskainiko digun saioaz, nola arraio nahi du gu konbentzitzea?

Akaso aipatzen ari naizen aurkezlea ikaslea izan liteke. Kasu horretan ulergarriagoa litzateke: eskarmentu falta, gaztetasuna... Horrela izanda, aukera izango du larunbatero bera ere gai dela inork bataiatuko saioan bere nortasuna erakusteko.

■ **Europa eta munduko hiritarrak.** Asteburu honetan aukera izan dut lehenengo aldiz *The European*, Europarako egin den lehen egunkaria (hau ere *Hemen* eta *Egunaren* senitartekoa da, egunkari itxura izanda, asteburuetan soilik kaleratzen bait da) irakurtzeko.

Ingelesez dago, hango eta hemengo kazetariak idatzia, kolorea darabil eta oso europarra da. Ez dakit zenbateraino irakurriko den, baina beroi esku artean izanda, ezin ekidin Europa, atzera eta aurrerapausu dexenterekin, aintzina doan errealitatea dela pentsatzea. Oraingoz inperfektoa den errealitateari irten zaio inperfektoa baina interesgarri den parekoa, prentsa idatzi mailan.

Asteburu honetan ere, munduan zehar Maradona eta haren taldeki-deen negar malkoak bateratsu ikusi genituen 800 milioi ikusleen artean nengoen. Kasu honetan futbola izan da halako ikusle goitzela lortu duena. Beste batzuetan Irango lurrikarak edo transbordadore espazialaren jaurtitzea.

Herri komunikabideen garaian -Arrasate Press eta ATB kasu-, mundu edo kontinente mailako komunikabideek, geure lau mendiz harantzagoko unibertsoaren partaide garel behin eta berriro gogora erazten digute.

Joxe Aranzabal



## gusto baduzu

■ **Kirolak:** Larunbat arratsaldean, 16.55etan esku-pilota. San Fermin txapelketaren finala.

Saskibaloiaren munduan, berriaz, Teresa Herrera Saria jarraitzeko aukera. Larunbatean kanporaketak, 8etan eta 10etan; finala, ostera, igandean, arratsaldeko 7etan.

Eta bukatzeko, atletismoa. Asotelehenean, 7etan hasita, Bartzelonako meeting-a zuzenean.


■ **Carny:** Robert Taylor-en filmea, larunbatean, gaueko 22.15etan. Antzezleak Gary Busey, Jodie Foster eta Robbie Robertson.

Donna, 18 urteko zerbitzaria, urketa langile batekin dabil. Urtean behin, ihauteriak ospatzen dira hirian, eta Donna egun horren zain egoten da.

■ **Purple rain:** Asteartean, gaueko 21.50etan, Albert Magnolen pelikula. Antzezleak Prince, Apollo-nia Koteru, Morris Day, Olga Karlatos eta Clarence Williams.

Minneapoliseko beltz gazte baten historia azaltzen da honetan. Gogor borrokatu beharko du, rock musikari moduan aurrera ateratzeko.

## bideoak



### Kalabaza tripontzia

Euskal Herriko ipuin eta kondaira tradizioletako heroi eta pertsonairik adierazgarrienak marrazki bizidunetan. Tartalo, Kukubiltxo eta Galzagorriren ibilketa eta biribilketak jarraitzeko aukera.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

aste ko

PROGRAMAZIOA

16 ASTELEHENA

20.00 Berriak Koldo Rodriguezek aurkeztua  
20.20 San Juanak 90.  
Ekainak 25, astelehen arratsaldeko emanaldia  
Berriak (errepikaldia)

17 ASTEARTEA

12.00 Berriak (bezperakoa)  
12.20 San Juanak 90  
Ekainak 26, astearte goizeko emanaldia

18 ASTEAZKENA

20.00 Berriak Koldo Rodriguezek aurkeztua  
20.20 Zenbat buru, hainbat aburu mahaingurua. Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzendua. Gaia: uztailaren 18a. Gonbidatuak: Jose Mari Uranga, Juanito Leibar, Antonio Urzelai eta Gerardo Elortza.  
Berriak (errepikaldia)

19 OSTEGUNA

12.00 Berriak (bezperakoa)  
12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)  
13.00 San Juanak 90  
Ekainak 26, astearte arratsaldeko emanaldia  
20.00 San Juanak 90  
Ekainak 26, astearte arratsaldeko emanaldia

20 OSTIRALA

20.00 Berriak Koldo Rodriguezek aurkeztua.  
20.20 Erretratoa J.R. Elortzak zuzendua. Gonbidatua: Joxe Egidazu "Kasino"  
20.50 Musikantoi Mikel, Pepe, Patxi eta Asierrek egina  
Berriak (errepikaldia)

21 LARUNBATA


12.00 Berriak (bezperakoa)  
12.20 Erretratoa (bezperakoa)  
12.50 Musikantoi (bezperakoa)




**J**uan Jose Azkarate antzuolarra CCOO sindikatoaren kidea da. Asteartean ATBn teknikari berriak hartzeko azterketetan egon zen begirale eta telebistako platoon antolatuz ziren mahainguruetan parte hartzen. Ikusi egin behar zen zein ondo eta nolako patxadaz hitz egiten zuen kamararen aurrean!



**J**esus Angel Miranda eta Julio Flor Madrigo Tribuna aldizkari argazkilaria eta kazetaria dira Euskal Herrian. Estatu mailako herri telebistei buruzko erreportaia egiten ari direnez, joan den astean ATBn izan ziren Erreportaia



**M**ondragoetar asko eta asko Esteban Illarramendiren eskutik hasi ziren European zehar bidaiatzen, Estebanek EPPn antolatzen zituen bidaiari esker. 1957an EPPra etorri aurretik, askotan ibili zen motxila aldean, hortik zehar bihurtzen. Zenbat buru, hainbat aburu programan esan zuenez, oraintsu etorri berri da Albanatik. Estebanek segitzen du Eskolako bidaiari antolatzen. Abuztuan Hungariara joango dira. Hori da sasoi, 68 urte eta ezin geldirik egon!



**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala



**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Desesperatua zabilta azken boladan, egin-beharrak desiro duzuna egitea eragozten dizulako. Lasai hartu, ondo merezia daukazun oporraldia atarian dago eta.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Portaera arraro honen zergatia jakiteko errepasatxo bat egitea komeni zaizu. Ez da hori zure gizalegea Leo, ez ibili inoren menpean.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Zeure burua zaindu beharko duzu datozen egunotan, bai osasun bai ekonomia aldetik. Lagunaren jarrera dela eta, arduratuta zabilta, utzizu pakean, baliteke inoren beharrak ez izatea eta.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Bizipoza sentitzen duzu aspaldiko partez, honek aurrera egiteko adorea emango dizu. Hala ere, erne eta ezerekin itsutu gabe ibil zaitez. Liseriketa txarrak izatea suerta liteke, astiro-astiro ibil zaitez jatorduetan.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Ez zara sentituko zorioneko, hala ere, ahalmen berezi baten jabe izango zara. Pentsatutako guztia egia bihur liteke. Entzun itzazu besteen esanak eta ez zaitez ibili gauza guztien kontrakoaren bila.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Komeni zaizun indarra hartu ahal izango duzu planetek eskainiko dizuten energietatik. Argi ibili beharko duzu hau lortzeko, ez zaitez lo egon. Ez da amodio batean pentsatzeko momenturik aproposena.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Baliteke besteen gonapean ibiltzea, hala ere hortzak erakutsiko dituzu. Ez litzaizuke gaizki etorriko iraganari errepasotxo ematea, batez ere izan dituzun esperientzia onei.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Familia zein lagunek ez dizute poz handirik emango, ez iezaziezu jaramonik egin. Arrisku ekonomikoa izan dezakeen edozein tratu ebitatu.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Baliteke eginberrara aurrera atera ezinda zabiltzala pentsatzea, baina gauzak pasa ahala desagertu egingo da. Ziurtasun osoz eta garbi berba eginez gero, zeurearekin itongo zara.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Zenbat eta jarrera sinpleagoa izan, orduan eta hobeto joango zaizu datorren astea. Garbi jotkatzeak okerrak zuzen ditzake, batez ere hainbat pertsonarekin dituzun haremanak.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Sutan egongo zara aste honetan, neka-neka eginda egongo zara horregatik eta ingurukoak mindu egingo dituzu. Hobe izango zenuke indar hori beste zezortan emango bazenu.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Aste arraroa datorrena Piscis. Gorabehera ugari izango duzu umore aldetik eta baliteke hanka sartzea ere. Ezizu berga gehigirik egin.




## ARRASATEko UDALA

### EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasten ari diren arrasatearrentzat beka ematen ditu. Argibide gehiagorako dei 79 09 00 telefonora, edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Arrasaten, 1990eko ekainaren 15ean

**AZ**

 tarjeta 6000

**Tarjeta 24**

**GK:**

**GIPUZKOAKO KUTXA  
CAJA DE GUIPUZCOA**

CADUCA FINAL ▶

## **GK TXARTELA**

### **Aldean eraman aldiro**

Gipuzkoako Kutxaren  
GK Txartela eraman behar  
da aldean, eguneraturik  
egoteko.

Gipuzkoako Kutxaren  
Kutxazain Automatikoetan  
erabateko erosotasunez  
iharduteko.

Edozein dendatan aldean

eskudirurik eraman gabe  
ordaintzeko.

AZ Bulegoetako zerbitzuez  
baliatzeko.

Era automatizatuan eta  
ordutegi zabalagoan.

Eta diru-arazorik gabe  
bidaiatzeko.

GK Txartela.

Aldean eraman aldiro.

**GK:**

**GIPUZKOAKO KUTXA  
CAJA DE GUIPUZCOA**



Arrasate saihesbidetik begiratuta

Musakolako Eskola Publikoko argazkingintza taldekoek egina

*Diru asko ala gutxi,  
ez ondotik pasa,  
ez begiak itxi.*

*Sartu, ikusi...  
eta komeni bazaizu erosi.*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Faxa: 791489 ARRASATE



**Zeure gogoko altzariak**